



AQUARIS
E5

Erabiltzailearentzako gida osoa

**Euskaltelek itzultako eta
ekoiztutako eskuliburua**



bq Aquaris E5

Bq taldetik, eskerrak ematen dizkizugu Aquaris E5 berria erosteagatik, eta espero dugu gustura erabiliko duzula.

Gailu hau SIM duala (microSIM) duen smartphone libre bat da; beraz, bi SIM aldi batera txerta ditzakezu, operadorea edozein dela ere. Interneten nabiga dezakezu, posta elektronikoa kontsultatu, jokoetan eta aplikazioetan aritu (gailutik zuzenean eros ditzakezu), liburu elektronikoak irakurri, fitxategiak bluetooth bidez transferitu, soinua grabatu, filmak ikusi, argazkiak eta bideoak atera, musika entzun, lagunekin eta senitartekoekin txateatu, gogoko sare sozialez gozatu eta abar.

Eskuliburuari buruz

- Smartphonea behar bezala erabiltzen duzula bermatzeko, erabiltzen hasi aurretik, arretaz irakurri erabiltzailearen eskuliburu hau.
- Gerta liteke eskuliburu honetako irudi eta pantaila-irudi batzuk bat ez etortzea azken produktuarekin.
- Gerta liteke edukiaren zati batzuk bat ez etortzea gailuaren funtzionamenduetatik firmware-eguneratzeak direla eta. Eskuliburu honen bertsio eguneratuena eskuratzeko, ikus www.bq.com.
- bqk ez ditu bere gain hartzen erabiltzaileak erregistro-parametroak aldatzeagatik sor daitezkeen errendimendu- edo bateraezintasun-arazoen ardurarik, ezta aplikazioen dendetan eskura dauden hirugarrenen aplikazioen batek eragindako bateraezintasun-arazoenik ere.

Azalpen-ikonoak



Arriskua: pertsonen osasunerako arriskutsuak izan daitezkeen egoerak.



Oharra: pertsonen osasunerako arriskutsuak ez diren egoerak, baina gailuaren funtzionamendu egokia arriskuan jar dezaketanak.



Aholkua: gailuari etekinik handiena ateratzeko informazio osagarria.

Marka komertzialak

bqren logotipoa Mundo Reader SLren marka erregistratu bat da.

Androiden eta Google Search™ren logotipoak Google Inc-ren marka erregistratuak dira.

Wi-Fi® Wi-Fi Alliance-ren marka komertzial erregistratu bat da.

Bluetooth® Bluetooth SIG, Inc-ren marka erregistratu bat da.

MicroSD™ SD-3D LLCren marka eta logotipo erregistratua da.

Dolby Laboratories-en marka komertzial erregistratuak dira Dolby eta D bikoitzaren sinboloa. Gainerako marka komertzialak dagozkien jabeenak dira. Copyright 2013 Dolby Laboratories. Eskubide guztiak erreserbatuta.

4	AURKIBIDEA
8	HASI AURRETIK
8	Paketearen edukia
9	Produktuaren ikuspegi orokorra
10	LEHEN URRATSAK
10	SIM txartelak nola txertatu
11	MicroSD txartela sartzea/ateratzea
13	Piztea eta itzaltzea
14	Gailua kargatzea eta fitxategiak transferitzea
16	Konfigurazio-laguntzailea
17	MAHAIGAINEKO ELEMENTUAK
17	Pantaila blokeatzea
18	Pantaila nagusia
19	Jakinarazpen- eta ohar-barra
20	Mahaigaina zabaltzea
20	Pantailaren orientazioa doitzea
21	Pantaila nagusia pertsonalizatzea
21	Pantaila nagusiko elementuak mugitzea edo kentzea
21	Elementuak karpetatant multzokatzea
22	Pantaila-irudiak egitea
22	Pantailaren bideo bat grabatzea
22	Ukipen anitzeko pantaila erabiltzen ikastea
25	Botoiak eta ikonoak
25	Botoiak
25	Egoera-barra
27	Teklatua
28	TELEFONOA
28	Kontaktuak kudeatzea

- 28 Kontaktu bat gehitzea
- 29 Lehendik dagoen kontaktu bat editatzea
- 29 Kontaktu bat erabiltzea
- 30 Kontaktu-talde bat sortzea
- 31 Bistaratu beharreko kontaktuak
- 31 Kontaktuak inportatzea eta esportatzea
- 32 Kontaktuak blokeatzea
- 32 Deiak
- 32 Kontaktu-agendatik
- 33 Telefono-elkarrizketa batean erabilgarri dauden aukerak
- 35 Gure telefonoaren IDa "ezkutuko" gisa konfiguratzea
- 35 Deiak murriztea
- 36 SMS eta MMS
- 37 Mezuak konfiguratzea

- 38 **DOIKUNTZAK**
- 38 **HARIRIK GABEKO SAREEN DOIKUNTZAK**
- 38 SIM txartela administratzea
- 39 WiFi-a
- 40 Bluetootha
- 41 Datuak erabiltzea
- 42 Gehiago...
- 44 Haririk gabeko pantaila
- 45 **GAILUAREN DOIKUNTZAK**
- 45 Audio-profilak
- 46 Pantaila
- 47 Biltegiratzea
- 48 Bateria
- 48 Aplikazioak
- 49 **DOIKUNTZA PERTSONALAK**
- 49 Kokapena
- 50 Segurtasuna
- 51 Hizkuntza eta testua idaztea
- 52 Segurtasun-kopia
- 53 **KONTUEN DOIKUNTZAK**
- 53 **SISTEMA-DOIKUNTZAK**
- 53 Eguna eta ordua

- 54 Piztea eta itzaltzea programatzea
- 54 Irisgarritasuna
- 57 Inprimatzea
- 57 Telefonoaren informazioa
- 57 Garapen-aukerak

- 59 **ERRENDIMENDU-DOIKUNTZAK**
- 59 Bateriaren iraupena optimizatzea
- 59 Bateriaren erabilerari buruzko xehetasunak kontrolatzea

- 60 **POSTA ELEKTRONIKOA**
- 60 Gmail kontua konfiguratzeko
- 60 Posta elektronikoko beste kontu batzuk konfiguratzeko
- 61 Mezu elektronikoak bidaltzea
- 61 Mezu elektroniko bati erantzutea

- 62 **MULTIMEDIA**
- 62 Kamera
- 63 Argazki- eta bideo-doikuntzak
- 66 Aurrez definitutako irudi-moduak
- 67 Irudi-galeria
- 68 Musika erreproduzitzea
- 69 Bideoak erreproduzitzea

- 70 **APLIKAZIOAK**
- 70 Aplikazioen denda
- 70 Jatorri ezezaguneko aplikazioak
- 71 Aurrez instalatutako aplikazioak
- 71 Web-nabigatzailea
- 72 Berehalako mezularitza
- 72 Testuen, kalkulu-orrien eta aurkezpenen editorea
- 73 Egutegia
- 73 Mapak eta GPS nabigazioa
- 73 Fitxategi-arakatzaila
- 74 Dolby
- 75 Genie Widget

- 76 **TRESNAK**
- 76 Kalkulagailua

- 76 Erlojua
- 77 Grabagailua
- 77 FM irratia
- 78 Ahots bidezko bilaketa

- 79 **ERANSKINAK**
- 79 A ERANSKINA: OTA eguneratzeak
- 80 B ERANSKINA: zehaztasun teknikoak
- 81 C ERANSKINA: garbiketa segurtasuna
- 84 D ERANSKINA: irrati-uhinen eraginpean egoteari eta SARI (Specific Absorption Rate, absortzio espezifikokoaren tasa) buruzko informazioa
- 85 E ERANSKINA: Produktu hau behar bezala botatzea
- 86 F ERANSKINA: adostasun-deklarazioa


HASI AURRETIK

Paketearen edukia

bq gailua lehen aldiz erabili aurretik, mesedez, egiaztatu paketearen edukia. Elementu hauetako bat ez badago, zoaz gailua erosi diozun banatzailearengana.

- ✓ bq Aquaris E5
- ✓ A motako USB kablea - B motako microUSB kablea
- ✓ Korrante-kargagailua
- ✓ SIM giltza
- ✓ Dokumentazioa:
 - Bizkor hasteko gida
 - Berme- eta segurtasun-eskuliburua
 - bq osagarriak
 - bq komunitatea

Produktuaren ikuspegi orokorra



⚠ Ez saiatu bq Aquaris E5en atzeko karkasa kentzen; gailua hondatu egin dezakezu. Bateria ere ez kendu. Hori ez betetzeak bermea galtzea ekar lezake.


⚠ Ez sartu objektu puntadunik atzeko kameraren ondoko zuloan. Inguruko soinua kentzeko mikrofonoa honda dezakezu.

LEHEN URRATSAK

SIM txartelak nola txertatu



Zure Aquaris E5a SIM dualeko (micro-micro) smartphone bat da. SIM erretiluetara kanpoaldetik joaten da. Ez da inoiz kendu behar bateriaren tapa.

Aurrerago azalduko dugu nola konfiguratzen den SIM txartelen erabilera Urrats hauek lagungarriak izango zaizkizu txartelak telefonoan txertatzeko telefonoa erabiltzen hasi aurretik




Gailuaren kaxan, SIM giltza eta hari buruzko dokumentazioa duen gutun-azala topatuko dituzu.

Gailua itzalia duzula, sartu SIM giltzaren punta SIM zirrikituaren zuloan, zure telefonia-operadorearen txartela txertatu nahi duzun lekuan.



Jarri zure operadorearen txartela ateratako erretiluan, izkinetako bateko koskaren posizioan arreta jarritz (ikusi irudia).

Txertatu berriro erretilua zirrikituan, SIM txartela gainean jarri eta gero.





MicroSD txartela sartzea/ateratzea

Zure bq Aquaris E5ak 8/16 GB-ko barne-memoria bat du (zehaztapenak modeloaren arabera kontsultatu), MicroSD txartel bidez 32 GB-raino handitu daitekeena.



MicroSD txartela txertatzeko, jarraitu urrats hauei:

Kendu microSD txartelaren zirrikitua babesten duen estalkia, smartphonearen goialdean dagoena.



Txertatu microSD txartela zirrikituan, pinak barrualdera eta gailuaren pantailarantz begira dituela.

Egin bultza txartelari soinu txiki bat entzun arte; behar bezala jarri dela adieraziko du. Horrela egin ezean, litekeena da gailuak ez ezagutzea, eta haren edukia ez da erabilgarri egongo.




Egiaztatu zirrikituaren estalkia itxi duzula, gailuan hautsik edo zikinkeriarik sar ez dadin eta txartela ustekabean atera ez dadin.

MicroSD txartela kentzeko, aurreko ataleko urratsei jarraitu behar diezu, baina alderantziz. Horrez gain, alderdi garrantzitsu hauek izan behar dituzu kontuan:



- a. MicroSD txartelagailua itzalita dagoela kentzea gomendatzen da, segurtasun handiagoa izateko.
- b. Gailua piztuta dagoela egin ez gero, aurrez txartela "seguru erauzi" behar da, honda ez dadin. Hondatuz gero, datuak galduko lirateke.

Horretarako, aukeratu smartphoneko doikuntzen menua, eta, gero, **Almacenamiento > Retirar tarjeta SD.**



Kendu microSD txartelaren zirrikitua babesten duen estalkia, smartphonearen goialdean dagoena.

Egin bultza txartelari, soinu txiki bat entzun arte; askatu egin dela adieraziko du. Sakatzeari utzitakoan, txartela pixka bat atzera joango da erabat atera dezazun.




Egiaztatu zirrikituaren estalkia itxi duzula, gailuan hautsik edo zikinkeriarik sar ez dadin.



Multimedia-fitxategiak non gorde aukeratu dezakezu: telefonoaren barne-memorian, edo, zuzenean kanpoko MicroSD txartelean. Gogoan izan kanpoko txartelean gordetako edukia ez dela eskuragarri egongo txartela kendutakoan, eta, beraz, aplikazio batzuek ez lukete funtzionatuko.


Piztea eta itzaltzea

bq Aquaris E5 pizteko, luze sakatu smartphonearen alboetako batean dagoen pizteko/itzaltzeko botoia.



Bi microSIM jarri badituzu gailuan, Aquaris E5 pizterakoan txartel bakoitzaren PINa sartu beharko duzu. Zure bq Aquaris gailuak SIM berri bat detektatzen duen bakoitzean, leiho bat bistaratuko da deietarako, bideo-deietarako, SMS-erako eta datu-konexiorako aurrez zehaztutako konfigurazioaren berri emanez.

Gailua itzaltzeko, pizteko/itzaltzeko botoia bi segundoz sakatu behar duzu hainbat aukera dituen menu bat ager dadin pantailan. Horien artean **Apagar** aukera dago, eta hura sakatu behar duzu gailua erabat deskonektatzeko.




Pizteko/Itzaltzeko botoia une batez baino ez baduzu sakatzen, pantaila itzaliko da, baina ez gailua.

Gailua kargatzea eta fitxategiak transferitzea

Zure smartphoneak 2500 mAh-ko bateria kargagarri bat du (ezin da atera), eta gailuaren beheko aldean dagoen microUSB konektorearen bidez kargatzen da. Bateria kargatzeko, telefonoarekin batera ematen dira A motako USB kable bat, B motako microUSB kable bat eta korronte-egokigailu bat. Erraz kargatu dezakezu urrats hauei jarraituz:

A) Korronte-egokigailua erabiliz:

1. Konektatu kablearen USB muturra korronte-egokigailuaren USB atakara.
2. Konektatu korronte-egokigailua edozein entxufe estandarretara (220V/50Hz).
3. Konektatu kablearen microUSBaren muturra smartphonearen microUSB atakara.



Ordenagailu eramangarritik edo mahaigaineko ordenagailutik:

1. Konektatu kablearen USB muturra ordenagailuarekin bateragarria den USB ataka batera.
2. Konektatu kablearen microUSBaren muturra smartphonearen microUSB atakara.



Zure bq Aquaris E5aren bateria ezin da atera; beraz, gure zerbitzu teknikitik kanpoko norbaitek ateratzen badu, baliteke gailuan kalteak eragitea eta bermea baliogabetzea.



Lehenengo aldiz kargatzen denean, karga osoa egitea gomendatzen da. Horrek bateriaren ahalmen-neurgailuaren kalibrazioa hobetzen laguntzen du. Kontuan izan bateria batzuen errendimendua zenbait aldiz karga osoa egindakoa hobetzen dela.



Gailua kargatzeko denbora desberdina izan daiteke, zuzenean korrontera kargatu edo ordenagailuaren USB atakaren bidez kargatu.

Smartphonea eta ordenagailua USB kable bidez konektatzen badituzu, haien artean fitxategiak ere **transferi** ditzakezu (barne-memoriatik edo microSD txarteletik), irudiak, bideoak, musika, testu-dokumentuak eta abar erabiltzeko, kopiatzeko edo gordetzeko, gailu batean nahiz bestean.

Fitxategiak transferitzeko modua konfigura dezakezu bq Aquaris ordenagailura konektatzen duzunean. Hatz bakar bat pantailaren goiko aldetik hasita beherantz lerratzen baduzu, ordenagailura **USB bidez** konektatzeko aukeretara joango zara. **Multimedia-gailu (MTP)*** gisa konektatu dezakezu – aktibatuta ageriko da lehenespenez – edo **kamera gisa (PTP)***.

Hainbat modutara transferi ditzakezu fitxategiak. Hona hemen USB konexio bidez egiteko urratsak:



1. Konektatuzure Aquaris gailua ordenagailura USB kable baten bidez. Kablearen microUSB konektorea gailuaren microUSB atakan sartu behar duzu, eta USB konektore generikoa ordenagailuaren USB atakan.
2. Hautatu fitxategiak, eta kopiatu smartphonean edo ordenagailuan. Gogoratu fitxategiak telefonoaren barne-memorian eta microSD txartelean –horrelakorik baduzu– gorde ditzakezula.



Mugikorretik (eta/edo microSD txarteletik) Mac OS ordenagailu batera eta alderantziz fitxategiak **MTP** eta **PTP** gisa transferitzeko, **Android File Transfer** doako aplikazioa deskargatu eta instalatu behar duzu ordenagailuan: www.android.com/filetransfer/.






Ez deskonektatu kablea fitxategiak kopiatzen ari diren bitartean.

Konfigurazio-laguntzailea


bq Aquaris E5 lehen aldiz pizten duzunean, laguntzaile batek gidatuko zaitu gailuaren oinarrizko konfigurazioak egiteko:

- Hizkuntza
- SIM txartelak
- WiFi sareak
- Kokapena eta Google
- Eguna eta ordua
- Mahaigaina kudeatzea



MAHAIGAINEKO ELEMENTUAK

Pantaila blokeatzea

Lehenespenez, zure smartphonearen pantaila automatikoki blokeatzen da denbora luzez gailua erabiltzen ez duzunean. Pantaila automatikoki itzali arte pasatu beharreko denbora konfiguratzeko, sakatu **aplikazio-menuaren** botoia , eta, aukeratu **Ajustes > Pantalla > Suspendir después de**, eta hautatu nahi duzun balioa. Pantaila itzali eta gailua eskuz blokeatzeko, labur sakatu pizteko/itzaltzeko botoia.

Desblokeatzeko, labur sakatu pizteko/itzaltzeko botoia, eta pantaila piztuko da konfiguratutako desblokeatze-aukera bistaratuz. Desblokeatze-aukera aldatzeko, sakatu **aplikazio-menuaren** botoia. Gero, aukeratu **Ajustes > Seguridad > Bloqueo de pantalla**, eta aukera hauetako bat: **Sin seguridad, Deslizar, Desbloqueo facial, Desbloqueo de voz, Patrón, PIN** eta **Contraseña**. Aukera horietako bakoitzari buruz informazio gehiago eskuratzeko, aukeratu **Ajustes > Seguridad**.




Pantailaren blokeoa desaktibatzeko modua ahazten baduzu, zenbait aldiz saiatutakoan **¿Has olvidado tu patrón?** aukera agertuko da. Hura sakatutakoan, zure helbide elektronikoa eta pasahitza agertuko dira. Haiek sartutakoan, pantaila desblokeatuko da.



Zure Aquaris E5ak pantailan ukitu bikoitza eginez telefonoa blokeatzeko eta desblokeatzeko funtzio berritzaile bat du. Horretarako, eta pantaila itzalita dagoela, sakatu bi aldiz bizkor pantailaren edozein lekutan, pitz dadin eta desblokeatzeko ereduak eska diezagun. Gainera, pantaila piztuta dagoela blokeatu eta itzaltzeko, jakinarazpen-barrako edozein lekutan egin dezakegu ukitu bikoitz hori.




Pantaila nagusia

Zure bq gailuan instalatutako tresna eta aplikazioetarako sarbide nagusia da **pantaila nagusia** edo **mahaigaina**. Handik, gailuaren egoera ikus dezakezu, webguneak bisitatu, aplikazioetan sartu...




- 1 **Egoera- eta jakinarazpen-barra.** Hainbat gauza kontsultatzeko balio du: ordua, WiFi seinalearen egoera, SIM bakoitzaren estaldura-seinalea, audio-profila, bluetootharen egoera eta bateriari geratzen zaion karga. Jakinarazpenak ere bistaratzen dira han, hala nola dei galduak, mezuak eta abar. Behera lerratuz gero, erosoago ikusiko dituzu zure jakinarazpen eta oharrak (hatz bakar batekin) eta doikuntza azkarretara ere sar zaitezke (bi hatzekin).
- 2 **Googlen bilatzea.** Sakatuz gero, bilatzailearen barra bistaratzen da, Interneten testu-bilaketak (nahiz ahots bidezkoak) egin ditzazun.
- 3 **Aurrez definitutako widgeta.** Lehenespenez zehaztutako widgeta energia-kontrolarena da, baina beste batzuk ere koka ditzakezu: ordua, albisteak, eguraldia...
- 4 **Lasterbideak.** Maizen erabiltzen dituzun aplikazioak aukeratzeko eta haietara azkar sartzeko balio dute.
- 5 **Aplikazio-menua.** Zure gailuan instalatutako aplikazio guztietara sar zaitezke.

Jakinarazpen- eta ohar-barra


Lerratu beherantz, hatz batekin, goian dagoen jakinarazpen- eta ohar-barra, jakinarazpenak ikusteko. Ezabatu guztiak aldi berean  ikonoa sakatuta edo jakinarazpenetako bakoitza alboetara lerratuta. Aurreko ikonoaren alboan,  ikonoa dugu, jabe-profila sortzeko eta konfigurazio-ikonoak aktibatze/desaktibatze balio duena. Pantaila hori bistaratzeko beste era bat da goiko barra bi hatzekin lerratzea. Goian, eskuinean,  ikonoa duzu. Jakinarazpen eta oharrak kontsultatzeko balio du. Jakinarazpenak jasotzeko, deskargatzen duzun aplikazio bakoitzean adierazi beharko duzu, eta/edo kontu ugari gehitu beharko dituzu hemen: **Ajustes > Cuentas > Añadir cuenta**. Pantaila nagusira itzultzeko, lerratu barra gorantz.



Hatz batekin lerratzea



Bi hatzekin lerratzea

Jakinarazpen-barra bi hatzekin lerratuz gero, aukera-zerrenda bat bistaratzen da, zeinak aukera ematen baitu hainbat konfiguraziotara sartzeko, azkar eta erraz. Esaterako, pantailaren distira, konektagarritasuna... Goiko eskuineko ikonotik, erakutsi/ezkutatu nahi ditugun aukerak konfiguratu ditzakegu . Aurrerako azalduko ditugu, xehatuago, lehenespenez ezkutatuta dauden aukera horietako batzuk.

Pantaila nagusian menu-botoia sakatu edo pantailako leku huts bat luze sakatuz gero, pertsonalizatzeko eta doikuntzetako aukerak bistaritzen dira. Hauek dira aukerak:

- Fondos de pantalla: zenbait irudiren artean aukeratzeko, **pantaila nagusiaren** eta haren mahaigain zabalduen atzealde gisa erabiliko dena hautatzeko.
- Widgets: **pantaila nagusian** zenbait widget bistaratzeko. Aplikazio edo programa txiki batzuk dira, eta gailuaren zenbait funtzionalitatetarako sarbide erraza eta azkarra ematea eta informazioa helaraztea dituzte helburu (albisteak, eguraldia...).
- Ajustes: gailuaren doikuntza-menura eramaten du zuzenean aukera honek. Egoera-barratik eta aplikazio-tiraderatik ere sar daiteke.

Widgetak erabiltzeaz gainera, mahaigainean lasterbideak sor ditzakegu aplikazioetara, kontaktuetara eta abarrera sartzeko. Horretarako, sartu aplikazio-tiraderara, sakatu lasterbidea egin nahi diozun aplikazioaren ikonoa, eta arrastatu **mahaigainean**, zuk nahi duzun lekuraino.

Mahaigaina zabaltzea

Pantaila nagusiak lau **pantaila zabaldu** ditu, eta lasterbideekin, aplikazioekin edo widgetekin pertsonaliza ditzakezu haiek guztiak. **Pantaila nagusian** eta **pantaila zabalduetan** nabigatzeko, sakatu eta lerratu hatzarekin pantailan, eskuinera edo ezkerredera.

Pantailaren orientazioa doitzea

Aplikazio batzuetan, pantailaren orientazioa automatikoki biratzen da erretratutik (bertikala) paisaiara (horizontala) eta alderantziz, gailua jartzen duzun eraren arabera. Pantailaren orientazioa finkatu nahi baduzu, sakatu **Menú de aplicaciones > Ajustes > Pantalla**, eta kendu marka **Pantalla giratoria kontrol-laukiari**.

Pantailaren errotazioa konfiguratzeko, dagokion aukera ere erabil daiteke (Autorrotación), errotazio automatikoa aktibatzeke edo desaktibatzeke.

Pantaila nagusia pertsonalizatzea

Zure smartphonearen **pantaila nagusia** edo **pantaila zabalduak** pertsonaliza ditzakezu, atzealde gisa zeure irudiak erabiliz, zure gogoko aplikazioen, widgeten eta abarren ikonoak edo lasterbideak gehituz...

Pantaila-atzealdea aldatzeko edo widget bat gehitzeko, sakatu segundo batzuek **pantaila nagusia**ren edo **pantaila zabalduen** atzealdeko irudia. Leiho gainerakor bat bistaratuko da, hainbat aukera dituena. Pantaila-atzealdeak eta widgetak dituzu aukeran, eta Ajustes atalera ere sar zaitezke.

Pantaila-atzealdeak hautatzean, hautatu nahi duzun irudia, eta sakatu **Establecer fondo de pantalla**, hautapena baieztatzeko. Aukeratutako irudia handia bada, haren bistaratze-eremua editatu egin beharko duzu.

Bestalde, beste irudi bat ezar daiteke blokeo-pantailarako. Pantaila itzalita dagoela pizteko botoia sakatu eta berehala bistaratuko da irudi hori, desblokeatzeko eredu idatzi aurretik. Blokeatzeko irudiak ez du zertan bat etorri **pantaila nagusiko** irudiak.

Pantaila nagusiko elementuak mugitzea edo kentzea

Pantaila nagusian dagoen elementu bat mugitzeko, luze sakatu ikonoa hatzarekin, atzealdetik askatu arte, arrastatu nahi duzun lekuraino, eta askatu. Mahaigain zabalduaren pantaila batetik bestera mugi ditzakezu elementuak, elementua alboko ertzeraino eramanez, pantaila batetik bestera alda dadin.

Elementu bat ezabatu nahi izanez gero, "eliminar" hitza duen gurutzeraino arrastatu behar duzu (pantailaren goiko aldean), eta, ikonoa gorri jartzen denean, ikonoa askatu behar duzu, ezabatzeko.

Elementuak karpetan multzokatzea

Horretarako, jarri elementu bat multzo berean sartu nahi duzun beste batengainean. Hala, karpeta berean egongo dira. Elementu gehiago sar ditzakegu karpeta barrura arrastatuta. Karpetari izena jartzeko (edo lehendik dagoen bat aldatzeko), labur sakatu karpeta, eta sakatu "carpeta sin nombre". Karpeta ireki ondoren, elementuak atera ditzakegu haien gainean sakatu eta kanpora arrastatuz.

Pantaila-irudiak egitea

Edozein unetan egin daitezke pantaila-irudiak, oso erraz. Nahikoa da bolumena jaisteko tekla eta pizteko/itzaltzeko botoia aldi berean sakatzeko eta sakatuta mantentzea segundo batez. Pantaila-irudia automatikoki gordeko da Galería atalean, “Capturas de pantalla” izeneko karpeta batean. Ordenagailuan, bide hau bilatu behar dugu: **Pictures > Screenshots**.

Pantailaren bideo bat grabatzea

Aurrekoaren oso antzekoa da metodoa: grabatzen hasteko, nahikoa da bolumena igotzeko tekla eta pizteko/itzaltzeko botoia aldi berean sakatzeko; grabatzen amaitzeko, konbinazio bera errepikatu behar da. Pantaila-irudien leku berean gordeko da bideoa ere.



Pantaila-irudiak egin eta bideoak graba daitezke, bestalde, jakinarazpen-barra bi hatzekin jaitsi eta goitibeherako menuan dagokion aukera sakatzuz gero.

Ukipen anitzeko pantaila erabiltzen ikastea

Zure smartphoneak ukipen anitzeko pantaila du, aldi bereko detekzio-puntu ugarikoa. Haietan, hainbat funtziori lotutako mugimenduak egin ditzakezu:


Ukitzea. Sakatu labur pantaila, objektu bat aukeratzeko, aplikazio bat irekitzeko, testua idazteko tiradera irekitzeko eta abarrerako.



Luze sakatzea. Pantailako puntu bat (hutsa edo elementuren bat duena) 2 segundoz sakatuz gero, eskuragarri dauden aukeren menua aktibatuko dugu.




Arrastatzea. Objektu bat mugitzeko, luze sakatu haren gainean, arrastatu nahi duzun lekuraino, eta askatu.



Lerratzea. Sakatu, labur, pantaila nagusiko puntu bat, eta lerratu ezkerrera edo eskuinera, mahaigain zabaldu batetik bestera aldatzeko. Bestela, lerratu gora edo behera, webgune batean, zerrenda batean edo menu batean mugitzeko.



Atximur egitea. Ukitu pantaila bi hatzekin aldi berean, eta bereizi zoomaren maila handitzeko, edo elkartu txikitzeko.



Bi aldiz ukitzea. Sakatu pantaila bi aldiz, azkar-azkar, zooma handitzeko. Errepikatu ekintza hori berriz urruntzeko. Erabili pantaila aktibatzeneko ere.




Botoiak eta ikonoak

Hona hemen botoi eta ikonoen deskribapen labur bat. Baita erabilerari buruzko aholku batzuk ere:

Botoiak

Aplikazioetan, aurreko pantailara itzul zaitezke **Atzera** botoia  sakatuta.











Edozein unetan joan zaitezke pantaila nagusira, **Home** botoia edo **hasierako** botoia  sakatuta. Gainera, luze sakatuz gero, azkena irekitako aplikazioak ikus ditzakezu.

Aplikazio baten menura sar zaitezke **aplikazio-menuaren** botoia  sakatuta.






















Egoera-barra

Egoera-barra ikusgai egoten da beti pantailaren goiko aldean, eta gailuari buruzko informazio garrantzitsua ematen du.

Hauek dira ikono nagusietako batzuk:

-  Bateria ia erabat deskargatuta.
-  Bateria kargatzen.
-  Bateria erabat kargatuta.
-  WiFi-aren hargunea piztuta eta sare batera konektatuta.
-  Soinua desaktibatuta eta bibrazioa aktibatuta.
-  Soinua eta bibrazioa desaktibatuta.
-  Hegazkin-modua aktibatuta bi SIMetarako (SIM bakoitzari kolore bat esleitzen zaio).
-  Datu-trafiko aktibatuta (G, E, 3G, H edo H+ ager daiteke, datu-konexioaren motaren eta transferitzeko abiaduraren arabera).
-  USB bidezko konexioa.
-  Bluetootha aktibatuta.

Barra bi hatzekin lerratuz gero bistaritzen den goitibeherako menuaren bidez aktiba/desaktiba ditzakegun aukeretako batzuk:

-  **Distira:** distira doitzeko modua aukeratzeko (automatikoa edo eskuzkoa) eta zuzentzeko balioa aldatzeko.
-  **Doikuntzak:** doikuntzen menu orokorra irekitzeko.
-  **Wi-Fi:** aktibatzekeo/desaktibatzekeo.
-  **Datu-konexioa:** Interneteko konexioa aktibatzekeo/desaktibatzekeo.
-  **Bluetootha:** aktibatzekeo/desaktibatzekeo.
-  **Bolumena:** audioaren irteera-maila kontrolatzeko (**General, Notificaciones, Multimedia** eta **Alarmas**).
-  **Bateria:** *Ajustes > Batería* aukerarako lasterbidea da.
-  **Autoerrotazioa:** pantailaren biratze automatikoa aktibatzekeo edo desaktibatzekeo.
-  **Kokapena:** zuresmartphonearen GPS kokapena aktibatzekeo/desaktibatzekeo.
-  **Hegazkin-modua:** seinalea bidaltzea eta jasotzea aktibatzekeo/desaktibatzekeo.
-  **Tethering:** sarea ainguratzearen edo WiFi eremuaren konfiguraziora sartzeko.
-  **Blokeatzea/hibernatzea:** pantailaren blokeoa aktibatzekeo.
-  **Sync:** gailuaren sinkronizazio automatikoa aktibatzekeo/desaktibatzekeo.
-  **Audio-profilak:** **General, Silencio, Reunión** edo **Exterior** hautatzeko.
-  **Datuak erabiltzea:** *Ajustes > Uso de datos* aukerarako lasterbidea.
-  **Haririk gabeko pantaila:** haririk gabeko pantailak detektatzeko, irudiak eta soinua bidali ahal izateko.
-  **Datu-konexioa:** telefonoaren datuak aktibatzekeo edo desaktibatzekeo.
-  **Itzaltzea:** goitibeherako menutik gailua itzaltzeko.
-  **Pantaila-irudia:** goitibeherako menuaren azpiko pantailaren irudi bat gordetzeko.
-  **Pantaila grabatzea:** pantailan denbora errealean bistaritzen den guztiaren bideo bat egiteko.
-  **Soinu-grabagailua:** audio-grabaketaren aplikaziora sartzeko.



Funtzio batzuek (WiFi-ak edo bluetoothak, esaterako) aukera ematen dute beren doikuntza aurreratuetara sartzeko, zerrendaren ikonoa luze sakatuta.



Distira automatikoa desaktibatuta dagoela, pantailaren distiraren intentsitatea alda dezakezu, ezkerrera edo eskuinera mugituta.

Teklatua

Edozein testu-eremu sakatuta, teklatu birtuala bistaratuko da.



1. Letra larrien blokeoa aktibatzeko.
2. Letretatik zenbaki eta sinboloetara aldatzeko, eta alderantziz.
3. Diktaketa-funtzioa aktibatzeko.
4. Zuriunea.
5. Enter/lerro-jauzia.
6. Ezabatzeko.



Beheko eskuineko ertzean eten-puntuak dituzten tekla guztiek funtzio gehigarriak dituzte luze sakatuz gero.



Teklatuaren konfigurazioari eta testua sartzeko hizkuntzei buruzko informazio gehiago ikus dezakezu doikuntza pertsonalen atalean.

TELEFONOA

Kontaktuak kudeatzea

Contactos aplikazioa erabiliz, SIM txarteletan nahiz gailuko barne-memorian edo konfiguratutako onlineko kontuetan gordeta dauzkazun datu guztietara sar zaitezke.


Aplikazio horretan, hauek egin ditzakezu:

- Kontaktu berriak sortu
- Lehendik dauden kontaktuak eguneratu
- Kontaktu-taldeak sortu
- Bistaratu nahi dituzun zerrendak aukeratu
- Deiak egin edo SMSak bidali
- Kontaktuak blokeatu

Kontaktu bat gehitzea

Agendara kontaktu berri bat gehitzeko, eskuz egin dezakegu, **Contactos** aplikaziotik, edota **dei-erregistrotik**:

Kontaktu bat eskuz gordetzeko:


1. Sartu **Contactos** aplikaziora, **pantaila nagusitik**.
2. Sakatu  ikonoa, eta kontaktua gordetzeko eskuragarri dauden kontuen zerrenda bistaratuko da pantailan.
3. Bete nahi dituzun eremuak:
 - a. Izen-abizenak
 - b. Enpresa
 - c. Telefonoak
 - d. Posta elektronikoa
 - e. Posta-helbidea
 - f. Beste eremu bat gehitzea
4. Sakatu "Listo", kontaktua gordetzeko.

Dei-erregistroan, gorde nahi duzun zenbakiaren alboko pertsona-irudia sakatu behar duzu (zenbakia sakatuz gero, deitzen hasiko da automatikoki). Gero, hautatu **Crear nuevo contacto** (edo bilatu lehendik dagoen bat, zenbaki berri bat gehitzeko), aukeratu kontaktu berria gorde nahi duzun kontua, eta bete aurreko metodoan aipatutako datuak.



Kontaktuak beti zure Googleko kontuan gordetzea gomendatzen dizugu, beti segurtasun-kopia bat izan dezazun gailua galdu edo lapurtuz gero, eta kontaktuak eskuragarri izan ditzazun urrunetik eta beste edozein gailutatik.


Lehendik dagoen kontaktu bat editatzea



1. Sartu **Contactos** aplikaziora, **pantaila nagusitik**.
2. Hautatu aldatu nahi duzun kontaktua.
3. Sakatu  ikonoa, aukera gehiago bistaratzeko, eta aukeratu **Editar**.
4. Sakatu eremuetako bat, editatzeko, edo **Añadir otro campo**, datu berriak gehitzeko.
5. Sakatu **“Listo”**, aldaketak gordetzeko.

Kontaktu bat erabiltzea

Contactos aplikaziotik, dei bat egin dezakezu, testu-mezu bat bidali edo beste bideren batetik harremanetan jarri aurrez **Agendan** gehitu dituzun pertsonekin.

Horretarako, sakatu harremanetan jarri nahi duzun kontaktuaren izena, eta sartu haren xehetasun-zerrendara (bestela, sakatu argazki bat, aukera-menu laburtu bat bistaratzeko). Hauek egin ditzakezu hemendik:



- Dei bat egin
 - Deitu nahi duzun zenbakia sakatuta.
 - Bi SIM txartel badauzkagu txertatuta, deia bietako zeinetatik egin nahi dugun galdetuko digu sistemak.
- Bideo-dei bat egitea
 - Sakatu  ikonoa, eta aukeratu bideo-deia zein SIM txarteletatik egin nahi duzun.
- SMS bat bidaltzea

- Sakatu  ikonoa, eta idatzi SMSa.
- Mezu elektronikoa bidaltzea
 - Sakatu nahi duzun helbide elektronikoa
 - Aukeratu nahi duzun posta-bezeroa (Correo, Gmail...)
- Beste aukera batzuk (sakatu hiru puntuen ikonoa , goiko eskuineko ertzean)
 - Compartir: beste kontaktu bati uneko kontaktuaren informazioa bidaltzeko.
 - Eliminar contacto
 - Imprimir
 - Establecer tono: kontaktu jakin bati lehenetsia ez den tonu bat ezartzeko
 - Bloquear llamada recibida: kontaktu baten sarrerako deiak murrizteko.
 - **Añadir a la Pantalla de inicio:** mahaigainean kontaktu horretarako lasterbide bat sortzen du.

Kontaktu-talde bat sortzea

Contactos aplikazioan taldeak sor ditzakegu, kontaktuak erraz antolatzeko. Adibidez, lagunak, lankideak, senitartekoak eta abar bereiz ditzakegu.

Talde bat sortzeko:

1. Aukeratu  fitxa, kontaktu-zerrendan.
2. Sakatu  ikonoa, pantailaren beheko aldean.
3. Aukeratu taldea sortu nahi duzun zure Gmail kontuan edo telefonoan gordetzeko.
4. Idatzi taldearen eta hura osatuko duten kontaktuen izenak.
5. Sakatu **Listo** taldea gordetzeko, **Contactos** aplikazioaren barruko talde-zerrenda bistaratu dadin.

Zenbait konfigurazio egin daitezke, hala nola dei-tonu batek edo jakinarazpen-tonu batek talde bateko kide guztiei eragitea edo taldeko kideen artean jasotako sarrerako deiak edo mezuak identifikatzea.

Bistaratu beharreko kontaktuak

Kontaktu-zerrendan, aukera oso erabilgarri daz zerrendan zein kontaktu bistaratuko diren aukeratzeko. Gmaileko kontuan, telefonoan edo Facebookeko kontaktuetan gordetakoak aukeratu daitezke, besteak beste.

Kontaktu-zerrendak aukeratzeko:


1. Kontaktu-zerrendan, sakatu **menu**-botoia.
2. Hautatu **Contactos que mostrar** aukera.
3. Aukeratu bistaratuko diren kontaktu-taldeak.
 - a. Kontaktu guztiak.
 - b. Gmaileko kontaktuak.
 - c. Telefonoko kontaktuak.
 - d. Pertsonalizatzea: aurreko aukeretako baten barruan azpitaldeak aukeratzeko (familia, lagunak...).

Kontaktuak inportatzea eta esportatzea

Aukera honen bidez, jatorri bat eta helburu bat aukeratu ditzakegu zenbait konturen, aplikazioen edo telefonoaren memoriaren artean. Horretarako:

1. Sakatu **menu**-botoia, kontaktu-zerrendan.
2. Sakatu **Importar/Exportar**.
3. Aukeratu zein jatorritatik kopiatu nahi duzun.
4. Hautatu itsasteko helburua.
5. Aukeratu kopiatuko dituzun kontaktuak.
6. Sakatu **Aceptar** botoia, prozesua martxan jar dadin.

Kontaktu bat blokeatzea

1. Contactos aplikazioan, sartu blokeatu nahi duzun kontaktuaren fitxan, haren irudia sakatuta.
2. Sakatu  ikonoa, aukera gehiagotara sartzeko.
3. Markatu **Bloquear llamadas recibidas** aukera.


Deiak

Mahaigain nagusian, sakatu telefonoaren ikonoa , dei-menura sartzeko. Menu horretan, hauek egin daitezke:

- Maizen deitzen diezun kontaktuak ikusi
- Bidalitako eta jasotzeko deien historia ikusi
- Deiak egin

Pantaila nagusian telefonoaren ikonoa sakatuta, gogoko kontaktuetara eramaten du zuzenean, jarduera handiena dutenetara.

Pantaila horretatik, **Agenda** ikus dezakegu, **Todos los contactos** sakatuta edo  ikonoa eta **Contactos** sakatuta.




 ikonoa sakatuta, historian sartuko gara. Han, bidalitako eta jasotzeko dei guztien zerrenda ikus daiteke, kronologikoki ordenatuta (eginberriak lehenengo).

Dei bat egiteko, zenbait aukera ditugu:




Contactos aplikazioko agendatik

1. Sartu agendara, arestian aipatutako metodoetako bat erabiliz.
2. Aukeratu deitu nahi diozun kontaktua, haren izena sakatuta.
3. Sakatu telefono-zenbakia, deia egiteko.

Deien historiatik

1. Sakatu telefonoaren ikonoa , **pantaila nagusian**.
2. Sakatu erlojuaren ikonoa .
3. Sakatu telefonoaren ikonoa . Deitu nahi diozun kontaktuaren historiaren alboan dago.


Zenbaki bidezko markaketako paneletik

1. Sakatu telefonoaren ikonoa , **pantaila nagusian**.
2. Sakatu , markaketa-panela bistaratzeko.
3. Markatu deitu nahi duzun zenbakia.
4. Sakatu telefonoaren botoia , panelaren beheko aldean, markatutako zenbakira deitzeko.

Sarrerako dei bat jasotzen duzunean, deiari erantzun egin diezaiokezu, uko egin edo testu-mezu baten bidez erantzun.

Deia sartzen denean, deitzen ari den telefono-zenbakia bistaritzen da zure smartphonearen pantailan, eta keinuka ari diren puntuz betetako esfera bat bistaritzen da. Aukera hauek dituzu:

1. Sakatu esfera eta arrastatu ezkerrera, sarrerako deia ez hartzeko.
2. Sakatu esfera eta arrastatu eskuinera, sarrerako deia onartzeko.
3. Sakatu esfera eta arrastatu gora, deiari testu-mezu baten bidez erantzuteko.







Telefono-elkarrizketa batean erabilgarri dauden aukerak


Konexioa ezarri ondoren, kontaktuaren izena bistaritzen da pantailaren goiko aldean (aldez aurretik agendan gorde bada), bai eta zein zenbakitik deitzen duen, telefono mugikorra/finkoa den, zein herrialdeetatik deitzen duen eta dei horretan aktibo dagoen SIMaren operadorea zein den ere.


Beheko aldean, dei horretarako zenbait aukera ditugu:

Telefonoaren ikonoa duen banda gorria sakatuta, deia bukatu egingo da.

-  Zenbaki bidezko markaketako panela irekitzeko
-  Esku libreko funtziorako kanpoko bozgorailua aktibatzeko
-  Barruko mikrofonoa isilarazteko
-  Uneko deia gelditu eta zain uzteko



- Uneko deiari kontaktu bat gehitzeko
 - Lehenik eta behin, uneko deia zain uzten du, eta beste kontaktu bati deitzeko aukera ematen du.
 - Hirugarren pertsona batekin konexioa ezarri ondoren, aukeran daukazu elkarrizketak txandakatzea edo multikonferentzia batean elkartzea.



Sarrerako dei batean, deia hartu ondoren, tonua isilaraz daiteke telefonoa buruz behera jartze hutsarekin. Horretarako, dei-menuan , sartu **Ajustes** > **Otras configuraciones** aukerara, eta markatu **Silenciar al girar** aukeraren kontrol-laukia.

Irteerako deietan norberaren zenbakia ezkutatzeko aukera ere badago. Hala, deia jasotzen duen pertsonak ez du jakingo zer zenbaki ari zaion deitzen.

Gure telefonoaren IDa “ezkutuko” gisa konfiguratzea



1. Sartu dei-menura, **pantaila nagusian** telefonoaren ikonoa  sakatuta.
2. Sakatu  ikonoa, eta hautatu **Ajustes**.
3. Hautatu **Llamadas de voz > Configuración adicional** aukera.
4. Zein SIMen zenbakia ezkutatu nahi dugun hautatzea.
5. **Ocultar número** aukera markatzea.



Konfigurazioa ondo egin dela eta ondo funtzionatzen duela probatzea gomendatzen dugu. Telefonía mugikorreko operadore batzuek ez dute onartzen halako konfiguraziorik, eta baliteke deietan zenbakia ezkutatzek huts egitea.

Deiak murriztea


Batzuetan, interesgarria da telefonoa konfiguratzeko mota batzuetako deiak murriztu ditzan, sarrerakoak edo irteerakoak. Deiak murrizteko menura sartzeko:

1. Sartu dei-aplikaziora, **pantaila nagusian** telefonoaren ikonoa  sakatuta.
2. Sakatu  ikonoa, eta hautatu **Ajustes**.
3. Hautatu **Llamadas de voz > Configuración adicional** aukera.
4. Sakatu Restricción de Llamadas.
5. Aukeratu aktibatu nahi duzun murrizketa-mota (murrizketa egitean, ezin dira zenbaki jakin batzuk aukeratu; denentzat konfiguratu behar da, edo inorentzat ez).
 - a. Egindako dei guztiak.
 - b. Egindako nazioarteko deiak.
 - c. Egindako estatuko deiak.
 - d. Jasotako dei guztiak.
 - e. Mugikortasunean jasotako deiak.

Kontaktu jakin batzuen sarrerako deiak soilik murrizteko, “**Kontaktu bat blokeatzea**” atala kontsultatu behar duzu.

SMS eta MMS

SMS bat bidaltzeko, **Mensajes** funtziora sartu behar da, aplikazio-tiraderatik, edo, bestela, lasterbidera jo behar da.

Handik, aukeratu hartzailea(k), pantailaren goiko aldean dagoen barran izena idatziz edo barraren eskuinean dagoen  ikonoa sakatuz. kontaktu-zerrendara eramaten du zuzenean, nahi dena aukeratzeko. Mezua bidali nahi diogun zenbakia ez badago gordeta kontaktu-agendan, izena barran idatzi ordez, markatu SMSa bidali nahi diozun zenbakia.

Aplikazio hori bera erabilita, MMSak ere bidal daitezke. Horretarako, nahikoa da beheko barraren ezkerrean dagoen + botoia sakatzea, mezuaren testua idaztekoa, alegia. Botoia sakatu ondoren, multimedia-fitxategien zenbait aukera bistaratuko dira. Erantsi egin ditzakegu, gure SMSa MMS bihurtzeko.

- Capturar imagen
- Capturar vídeo
- Grabar audio
- Contacto
- Imagen de la galería
- Vídeo de la galería
- Audio
- Presentación

Mezu bakoitzeko 140 karaktereko muga dute SMSek. Karaktere gehiagoko testu bat ere bidal daiteke mezu bakar gisa, baina telefonia-operadoreak mezu bat baino gehiago tarifatuko digu (mezu bat 140 karaktereko). MMSen kasuan, multimedia-fitxategi bat txertatu ondoren, testuak ez du mugarik.

Testuaren hartzailea, testua eta multimedia-fitxategiak (MMSetan) txertatu ondoren, nahikoa da bidaltzeko ikonoa sakatzea (testua idazteko barraren eskuinean dago) mezua bidaltzeko.

Mezuak konfiguratzea

Mensajes aplikaziotik, SMS eta MMSak bidaltzeko eta jasotzeko hainbat aukera konfiguratu ditzakegu. ■ Botoia sakatu eta **Ajustes** hautatuz gero, hauek konfiguratu ditzakegu:

- SMS habilitados: mezularitzako aplikazioa aukeratzeko, **Mensajes** (lehenetsia) edo **Hangouts**.
- Mensajes de texto (SMS).
 - Solicita acuse de recibo: mezu bat jasoko dugu, hartzaileak SMSa jaso duela jakinarazteko.
 - Administrar mensajes de SIM.
 - Editar texto rápido: testu lehenetsien zerrenda editatzeko, gure beharretara egokitzeko.
 - Centro de servicios SMS.
 - Ubicación de almacenamiento SMS.
- Mensajes multimedia (MMS).
 - Mensajes de grupo.
 - Solicitar acuse de recibo.
 - Solicitar informe de lectura: SMSen kasuan, hartu izana baieztatzeaz gainera, hartzaileak irakurri duela baieztatzeko ere eska daiteke.
 - Recuperar automáticamente.
- Estatukoa.
- Mugikortasunean.
 - Modo de creación.
 - Límite de tamaño: MMS mezuaren gehienezko tamaina.
- Notificaciones.
 - Silenciar.
 - Sonido (jakinarazpen-tonua konfiguratzeko).
 - Vibrar.
 - Notificación emergente.
- General: mezuak bistaratzeari eta aplikazio barruko elkarrizketei buruzko doikuntzak egiteko.

DOIKUNTZAK


HARIRIK GABEKO SAREEN DOIKUNTZAK



SIM txartela administratzea

Bi SIM txartel instalatu badituzu zure gailuan, hemendik konfiguratu ditzakezu. Bi txartelen informaziora sartzeko, lehenik eta behin, aktibatu egin behar dituzu, SIM txartel bakoitzaren erlaitza eskuinera lerratuz. SIM txartel bakoitzak kolore bat izango du, erraz identifikatzeko. Kolore bera erabiliko da jakinarazpen- eta ohar-barrako estaldura-seinalea adierazteko ere.

Aktibatu/desaktibatu egin ditzakezu, eta bai eta ahots-deiak eta bideo-deiak egiteko, mezuak bidaltzeko eta datu-konexiorako bi txarteletako zein erabili nahi duzun konfiguratu ere. **Configuración general** aukera erabiliz, **Itinerancia** de datos zerbitzua konfiguratu daiteke, smartphonea atzerrian erabiliz gero. kontaktuak gorde diren SIM txartelarekin lotzea ere konfiguratu daiteke.



Kontuan izan ezin duzula aktibatu 3G konektagarritasuna bi SIM txarteletan aldi berean. Txandakatu egin dezakezu, gailua piztuta dagoela.



WiFi-a

WiFi bidez Interneten nabigatzen hasi aurretik, WiFi sare batera konektatu behar duzu, eta, kasu batzuetan, konfiguratu. Horretarako, sakatu **Ajustes > Conexiones inalámbricas y redes**.


WiFi modulua itzalita badago, lerratu etengailua eskuinera. Gero, sakatu **Wi-Fi**. Zure bq gailuak automatikoki bilatuko ditu eskuragarri dauden WiFi sareak, eta automatikoki eguneratzen den zerrenda batean bistaratuko ditu.




Sakatu konektatu nahi duzun sarea, sartu pasahitza, beharrezkoa bada, eta sakatu **Establecer conexión**. Konexioa ondo egiten bada, sarearen izena bistaratuko da, azpian **Conexión establecida** mezua duela.

Pasahitza sartzeko gehienezko denbora bat dago. Denbora hori igaro ondoren, WiFi-aren modulua deskonektatu egiten da. Pasahitza idatzi bitartean **Mostrar contraseña** kontrol-laukia aktibatzea gomendatzen da, akatsik gabe eta azkarrago idatz dezazun.

WiFi-aren modulua aktibatuta dagoenean, gailua automatikoki konektatzen da aukeratutako sarera. Zure bq smartphoneak inoiz konfiguratu gabeko sare bat aurkitzen badu, jakinarazi egingo dizu.

Buscar, PIN WPS eta **Ajustes avanzados de la red Wi-Fi** aukeretara sartzeko, sakatu **Ajustes > Conexiones inalámbricas y redes > Wi-Fi**. Gero, sakatu **menu-botoia**  .


PIN-WPS. Aukera honek, zure bideratzailearen arabera, aukera ematen dizu zure WiFi sarera konektatzeko, sarbide-pasahitza sartzea baino modu erosoago eta hura bezain seguru batekin. Zure smartphonea bideratzaileara konektatu eta haren sinkronizatu ahal izango duzu mugikorrean aldi berean  sakatuta, **Menú de aplicación > PIN WPS** sakatuta edo bideratzailearen PIN WPS botoi fisikoa erabilia.

Doikuntza aurreratuak. Atal honetan, eskuragarri dauden sareen jakinarazpenak eska ditzakezu, WiFi etena konfiguratu, bateria gutxiago kontsumitu dezan erabilera optimizatu eta IPv4/IPv6 eta MAC helbideetara sartu (gailu bakoitzari esleitutako identifikatzaile bakarra).

Bluetootha

Gailuak konektatu eta haien artean bluetooth bidez fitxategiak partekatzeko, aktibatu egin behar duzu. Horretarako, sakatu **Ajustes > Bluetooth**, eta lerratu fitxa eskuinera.




Ikusgarritasun-denbora edo zure smartphoneari esleitutako izena konfiguratzeko, jasotako fitxategiak kontsultatzeko edo konfigurazio aurreratura sartzeko, sakatu **menu-botoia**  .

Zure smartphonea beste gailu batzuekin lotzeko, sakatu **Ajustes > Conexiones inalámbricas y redes > Bluetooth**, eta, gero, zure bq gailuaren izena. Ordutik aurrera, beste gailu batzuentzat ikusgai egongo da 2 minutuz.

Gailu batera konektatzeko, biak ikusgai daudela, sakatu gailuaren izena. Gero, leiho gainerakor bat bistaratuko zaizu pantailan: **“Solicitud de sincronización de Bluetooth”**. Sinkronizatu zure bq gailua, eta onartu beste gailuan.


Datuak erabiltzea

Zure SIM txarteletako edozeinen bidez aktiba ditzakezu datu mugikorrak. Datuak aktibatzeko, aukeratu **Ajustes > Conexiones inalámbricas y redes > Uso de datos**, eta, nahi duzun txartela aukeratu ondoren (pantailaren goiko aldean), **“Datos móviles”** ikusiko duzu. Aktibatuta edo desaktibatuta ezar dezakezu han. Kontsultatu **Información general** atalean datu mugikorren kontsumoa, SIM txartelen edo WiFi-aren kontsumoaren arabera.



Gainera, zure SIM txartelari dagokion atalera sartu ahal izango zara **erreferentzia-datuak murrizteko**, **pantaila blokeatuan kontsumoa bistartzeko** eta baliabide eta aplikazioek kontsumitutako datuak kontsultatzeko.

Datu mugikorren muga bat ezarriz gero, datu-konexioa desgaitu egingo da ezarritako mugara iritsi ondoren.

Menu-botoia sakatuta  , konfigurazio aurreratura sartu ahal izango zara, datu-desplazamendua onartzeko, erreferentzia-datuak murrizteko, automatikoki sinkronizatzeko, WiFi-aren erabilera erakusteko eta mugikorreko sarbide bat bilatzeko.

Gehiago...

Hegazkin-modua aktiba dezakezu zure gailuan sare pribatu birtual baten konfiguraziora sartzeko (VPN), **sarearen ainguratzea eta WiFi eremua** kudeatzeko edo **sare mugikorrak** administratzeko, hemen azaltzen den moduan:



Modo avión: kontrol-laukia aktibatuz gero, desaktibatu egiten dira haririk gabeko konexio guztiak.

VPN: sare pribatu birtual bat konfiguratzeko balio du.

Anclaje a red y zona Wi-Fi: zure bq gailua WiFi, USB edo bluetooth sarbide-puntu bihur dezakezu, konexioa partekatzeko gailu batekin edo gehiagorekin.



Lehenik eta behin, gaituta eduki behar duzu, **Redes móviles** atalean, kontratatuta daukazu datu-konexioa. Gero, sartu **Anclaje a red y zona Wi-Fi** aukeran, eta aktibatu **Zona con cobertura inalámbrica**.

Zona de cobertura inalámbrica > Configurar zona Wi-Fi atalean, zure gailuaren sarearen SSID izena ikus dezakezu, eta zure pasahitza kontsultatu (**Mostrar contraseña** fitxa aktibatuta). Zure WiFi sare partekatura konektatzea nahi duzun gailuan sartu beharreko parametro berak izan behar dute. Zeuk nahi duzun erabiltzaile-kopurura mugatu dezakezu erabilera.

USB kable baten bidez egiteko, ordenagailura konektatu behar duzu zure bq gailua, microUSB kablea erabiliz, eta **USBa ainguratzeko** kontrol-laukia aktibatu behar duzu.

Bluetooth bidez egin nahi baduzu, aktibatu **bluetootha ainguratzeko** kontrol-laukia. Zure gailuaren sarea PC batekin partekatzeko, bluetootha aktibatu behar duzu bi gailuetan.

Estaldura-eremuaren konfigurazioan, aukeratu nola transmititu nahi duzun; **IPv4** eta **IPv4 & IPv6** aukerak dituzu (IP berrien nabigaziora egokituko da).

Redes móviles: aukerahonetan, sare mugikorraren konfigurazioakudeatu dezakezu. Zure smartphonearen modema aktibatu/desaktibatu dezakezu, datuak gaitu sare mugikorraren bitartez, zure operadorearen APNa kontsultatu, desplazamenduko datu-zerbitzuekiko konexioa ezarri, sare-erabilera 2G-ra mugatu eta sare-operadore bat aukeratu.

Haririk gabeko pantaila


Urruneko pantaila batera audio-/bideo-seinalea bidaltzeko erabil dezakezu zure smartphonea, WiFi sare baten bidez. Horretarako, protokolo horrekin bateragarria den TB bat behar da (Miracast/DLNA). Bete pauso hauek zure Aquaris konfiguratzeko eta pantaila TBan bikoizteko:

1. Piztu zure TB bateragarria, eta aktibatu haririk gabeko pantailaren modua (aktibatzeke modu bat baino gehiago daude, fabrikatzailearen arabera).
2. Sartu, zure smartphonetik, **Ajustes > Dispositivo > Pantalla** aukerara.
3. Zerrendaren beheko aldean, aukeratu **Pantalla inalámbrica**.
4. Zerrendan, aukeratu zein pantailatara bidali nahi duzun audioa/bideoa zure smartphonetik.
5. Segundo batzuk geroago, zure smartphonearen pantaila TBan ikusiko duzu denbora errealean.

GAILUAREN DOIKUNTZAK

Audio-profilak

General profila konfiguratu dezakezu. Hauek dira beste hiru profilak: **Silencio** (soinurik eta bibrazioa ez), **Reunión** (bibrazioa bakarrik) eta **Exterior** (soinua bolumen handian eta bibrazioa).




Profil berri bat sortzeko aukera ere baduzu, pantailaren beheko ezkerreko ertzean dagoen ikonoa sakatuta, edo konfigurazio lehenetsia berrezar dezakezu, beheko eskuineko ertzekeko ikonoa sakatuta.

General profilaren doikuntzetan edo sortzen dituzun profil berrietan, bibrazioa aktibatu ahal izango duzu, eta tonua eta bolumena aukeratu ahots- eta bideo-deietarako, zure multimedia-edukirako, jakinarazpenetarako eta alarmetarako. Sistemaren zenbait ekintzatarako soinuak eta bibrazioak aktibatzeko/desaktibatzekeo aukera ere izango duzu, hala nola: **Sonar al marcar número**, **Sonido al tocar**, **Sonido de pantalla de bloqueo** eta **Vibrar al tocar**.

Dei-tonuaren bolumena eta **zure multimedia edukia** doitu ditzakezu, bolumen-teklak sakatuta.

Pantaila



Estilo de pantalla de bloqueo: blokeo-pantailaren formatua aukeratzeko.

Notificaciones de pantalla de bloqueo: aktibatu/desaktibatu aukera hau zure bq gailuan jasotzen dituzun jakinarazpenak bistartzeko pantaila blokeatuan.

Fondo de pantalla: irudi edo bideo bat aukeratzeko pantaila-atzealde gisa. Aukeran dituzu atzealde bizidunak, sistemaren pantaila-atzealdeak, zure galeriak irudiak edo bideoak.

Brillo: pantailaren distira doitzeko.

Girar pantalla automáticamente: smartphonea biratzean pantaila automatikoki biratzea aktibatzeiko/desaktibatzeiko.

Suspender después de: pantaila automatikoki itzali arte igarotzen den denbora doitzeko.

Salvapantallas: aukera hori aktibatzeiko edo desaktibatzeiko.

Tamaño de fuente: letraren tamaina aukeratzeko; lau tamaina daude guztira.

LED notificación: jakinarazpenen LEDa konfiguratzeko hainbat aplikaziotarako. Kolorea nahiz keinuen abiadura alda daitezke.

Aplikaziotik bertatik kudeatu dezakezu LEDaren kolore lehenetsia, dei galduena, ahots-postontziko mezuena eta pertsonalizatzea onartzen duten zenbait aplikaziora.

Kolorearen laukia sakatuta, kolorea nahiz LEDaren keinuen maiztasuna alda ditzakegu.





Configuración HDMI: aktibatu HDMI konexioa zure bq gailua beste gailu batekin lotzeko MHL kable baten bidez (Full HD bertsioan soilik dago eskuragarri). Bideoaren irteerako bereizmena doitu dezakezu

Pantalla inalámbrica: konektatu zure smartphonea WiFi bidez aukera hori onartzen duen beste gailu batekin (beste smartphone bat, telebista...), zure pantaila bi gailuetan bistaratu dadin.

Biltegiratzea

Atal honetan, zure gailurako **idazketa-disko lehenetsia** aukeratu dezakezu. Aukera gehiago ere badituzu: gailuaren biltegiratze-unitateen erabilera kontsultatu, **SD txartela desaktibatu** segurtasunez ateratzeko eta/edo SD txartelaren edo telefonoaren **datu guztiak ezabatu**.

 Gailutik microSD txartela atera eta erabiltzen jarraitzen baduzu, baliteke aplikazioetako batzuek ez funtzionatzea berriz sartu arte. Itzali gailua edo sakatu segurtasunez erazteko aukera, pantailaren beheko aldean, microSD txartela atera edo sartu nahi duzun bakoitzean (bestela, baliteke txartela kaltetzea eta han gordetako informazio guztia galtzea).



Bateria

Lehen aukerarekin, hautatu egin dezakezu egoera-barran, bateriaren ikonoaren alboan, metatutako karga-ehunekoa ikusi ala ez.

Grafiko txiki bat ere ikusiko duzu, bateriaren iraupena eta jarduera azaltzen dituen. Grafikoa sakatuz gero, aplikazio edo zerrendako baliabide bakoitzaren gainean, kontsumo-xehetasun espezifikoak kontsultatu ditzakezu.



Aplikazioak

Atal honetatik, aplikazio guztietara sar zaitezke: deskargatutakoak, telefonoan gordetakoak, exekutatzen ari direnak edota aplikazio guztiak (atal horiek ikusteko, ezkerrera edo eskuinera lerratu behar duzu pantaila). Aplikazio edo baliabide bati buruzko informazio gehiago jakiteko, sakatu ezazu.

DOIKUNTZA PERTSONALAK



Kokapena

Aktibatuz gero, **zure kokapena eskuratzen uzten** die hala eskatzen duten aplikazioei (nabigazio-mapak aurrez instalatuta). **Control de energía** widgeta erabiliz ere aktiba dezakezu **GPS sateliteetarako** konexioa, bai eta jakinarazpen-barra hatzekin zabaldu eta **Ubicación** sakatuta ere.



Bi dira kokapen-iturriak: **GPS sateliteak** eta sare **mugikor eta WiFi bidezko kokapena**.

Modo atalean, aukera hauek dituzu:

- Alta precisión: GPSa + sare mugikorra = A-GPS
- Ahorro de batería: sare mugikorra soilik
- Solo en dispositivo: GPSa bakarrik


Zehaztasunik handiena GPS moduluak ematen du beti, baina, sare mugikorraren babesarekin, azkarrago aurkitzen du kokapena. Hori dela eta, errazago da nabigatzen hastea eta birbideratzea.

Gainera, **Ubicación** menuan, gailuaren kokapenerako sarbidea eskatu duten azken aplikazioak ikus ditzakezu, bai eta horrek ekipoari eragiten dion bateria-kontsumoa ere.



Segurtasuna

Hauek konfiguratu ditzakezu: **pantailaren segurtasuna** (blokeo-mota eta blokeo-pantailan ager dadin nahi duzun jabeari buruzko informazioa), telefonoaren **enkriptazioa**, sartzeko pasahitza edo PINa eskatzeko, eta SIM txartelaren blokeoaren konfigurazioa.




Administración de dispositivos atalean, administratzaileak ikusi eta aktibatu/desaktibatu ditzakezu, eta aurrez instalatutako dendakoak ez diren aplikazioak instalatzea onartu edo ez onartu (dendatik kanpoko aplikazioak nola instalatu jakiteko, zoaz eskuliburu honetako **Aplikazioak** atalera). **Egiaztagirien biltegitratzea** ere kudeatu dezakezu, jada instalatuta dauden CS ziurtagiriak kontsultatuz eta zure SD txarteletik egiaztagiriak instalatuz.




Hizkuntza eta testua idaztea

Atal honetan, sistemaren hizkuntza, automatikoki ortografia zuzentzea eta hiztegi pertsonala konfiguratu ditzakezu. Teklatua, testua idazteko metodoak eta ahots bidez diktatzekoak eta erakuslearen abiadura ere konfiguratu ditzakezu.



Testua idazteko metodoen konfigurazio aurreratuetan, tekla bat sakatzean egiten diren bibrazioa eta soinua alda ditzakegu, besteak beste.



Segurtasun-kopia

Aukera ematen du Googleren zerbitzarietan datuen, aplikazio-konfigurazioen, WiFi-aren pasahitzen eta abarren segurtasun-kopiak egiteko. Segurtasun-kopia egin ahal izateko, Googleko kontu bat konfiguratua izan behar duzu terminalean.



Fabrikako datu guztiak berrezarri eta geratutako DRM lizentzia (eduki digitalaren babesa) guztiak ezabatzeko aukera ere baduzu, aldez aurretik lizentzia horiei lotutako fitxategiak ezabatu badituzu.



Fabrikako balioetara berrezarri gero, telefonoaren barneko SDaren datu guztiak ezabatzen dira, bai eta aurrez instalatutako programa eta aplikazio guztiak ere. Hori dela eta, telefonoan fabrikako balioak berrezarri aurretik, multimedia-fitxategi guztiak gordetzea eta segurtasun-kopiak egitea gomendatzen da.

KONTUEN DOIKUNTZAK

Cuentas atalean aukeratu ditzakezu zure bq gailuarekin sinkronizatu nahi dituzun posta elektronikoko kontuen helbideak (POP, IMAP edo EXCHANGE). Beste kontu bat gehitzeko, sakatu **Añadir cuenta** botoia. Aukeratu bat: Correo, Cuenta de trabajo (Microsoft Exchange zerbitzari bati lotua) edo Cuenta de Google. Konfiguratu kontua, pantailan bistaratuko den laguntzaileak adierazten dizkizun pausoak emanez. Jada konfiguratuta dagoen helbide elektronikoa sakatuz gero, posta, kontaktuak eta egutegia sinkroniza ditzakezu, besteak beste, zerbitzu horien hornitzaileak sinkronizatzeko baimena ematen badu behintzat.

SISTEMA-DOIKUNTZAK

Eguna eta ordua



Fecha y hora automáticas: ordua automatikoki doitzen du, kokapenaren edo sare mugikorren arabera. Aukera hori desaktibatuz gero, eguna eta ordua eskuz konfiguratzeke aukera aktibatzen da.

Zona horaria automática: sareak emandako ordu-eremu automatikoa aktibatzeke edo desaktibatzeke. Desaktibatuz gero, automatikoki aktibatuko da Seleccionar zona horaria aukera, eskuz konfiguratzeke.

Formato de 24 horas: aktibatu edo desaktibatu ordua emateko 24 orduko formatua.



Formato de fecha: data-formatuaren ikuspegi konfiguratzeko; zenbait aukera daude.

Piztea eta itzaltzea programatzea

Gailua automatikoki piztu edo itzaliko den ordua konfiguratzeko eta konfigurazio hori asteko zein egunetan aplikatuko den zehazteko.

Irisgarritasuna

Sistemaren zerbitzu batzuk aktiba ditzakezu, gailuaren irisgarritasuna handitzeko: testua handitzea, ozen irakurtzea, botoi fisikoak botoi digital gisa erabiltzea, pasahitzak ahots bidez idaztea, azkar abiaraztea eta abar.



Talkback aplikazioa ere badu. Aplikazio horren bidez, ahots-mezuak eta bistaratze berezia izateko konfigurazioak eskaintzen ditu ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzat.

Lehen aldiz martxan jartzean, tutorial batek laguntzen du oinarriko konfigurazioa egiten:

Volumen de voz: ahotsaren bolumena doitzeko, multimedia-bolumenaren arabera.

Usar cambios de tono: tekla bat sakatzean tonu baxuago bat erabiltzea aktibatzekeo edo desaktibatzekeo.

Eco de teclado: teklatuko tekla bakoitza sakatzean entzungo den ahotsa konfiguratzekeo. Pantaila itzalita dela, ahotsaren soinua aktibatzen edo desaktibatzen du.

Sensor de proximidad: hurbiltasun-sentsorea aktibatzen edo desaktibatzen du, nahi duzunean ahotsa isilaraztekeo.

Agitar para iniciar la lectura continua: gailua astinduz gero etengabeko irakurketari ekitekeo.

Decir nombre del emisor: deia egiten ari den pertsonaren izena esatekeo aukera aktibatzekeo edo desaktibatzekeo.

Vibración: aukera bakoitza sakatzean bibratzea aktibatzekeo edo desaktibatzekeo.

Sonido: aukera bakoitza sakatzean soinua egitea aktibatzekeo edo desaktibatzekeo.


Dar prioridad al audio de discurso: elkarrizketetan multimedia-audioa jaistekoko aukera aktibatzekeo edo desaktibatzekeo.

Volumen de sonido: soinuaren bolumena doitzeko, multimedia-bolumenaren arabera.

Exploración táctil: ukipen bidezko esplorazioa aktibatzekeo edo desaktibatzekeo (keinuen bidez mugitzeko balio du, bi aldiz sakatuta onartzeko eta aukera bakoitza behin sakatuta hautatzeko)

Desplazar listas automáticamente: elementu-zerrendak pantailan automatikoki lerratzea aktibatzekeo edo desaktibatzekeo.

Selección con un toque: aukera bat hautatuta dagoela ukitu bakar batekin sartzea aktibatzekeo edo desaktibatzekeo.



Tutorial de exploración táctil: ukipen-esplorazioa erabiltzeari buruzko tutoriala bistaratzeko da berriz.

Administrar gestos: irisgarritasun-aukeretarako zenbait keinu aldatzeko eta konfiguratzeko.

Reanudar desde suspensión: pantaila aktibatzen denean martxan jartzeko, blokeo-pantaila bistaratzeko denean martxan jartzeko edo jakinarazpenetatik soilik martxan jartzeko konfiguratzeko balio du.

Ajustes de desarrollador: garatzaileentzako eta erabiltzaile adituentzako doikuntzak.

Gestos de ampliación: funtzio honi esker, pantaila hurbildu edo urrundu egin daiteke zoom bidez. Mugimendu hauek daude aukeran:

Handitzea aktibatzeko, sakatu 3 aldiz jarraian handitu nahi den eremua.

Handitzea desaktibatzeko, sakatu 3 aldiz jarraian handitutako eremua.

Modu ordenatuan desplazatzeko, lerratu hatz bat ezkerrera edo eskuinera.

Nahi den bezala desplazatzeko, lerratu bi hatz edo gehiago pantailan.

Zooma handitzeko edo txikitzeko, egin atximur edo zabaldu pantaila bi hatzekin edo gehiagorekin.

Edukia aldi baterako zabaltzeko, sakatu 3 aldiz jarraian handitu nahi den eremua, eta, hatza pantailatik askatu gabe, mugitu han.

Handitzeak ez dio eragiten teklatuari.

Texto grande: sistemaren eta aplikazioen letra-tipoa handitzea aktibatzen edo desaktibatzen du, errazago bistaratzeko.

Botón encendido cuelga: pizteko botoia sakatuta deiak esekitzeko aukera aktibatzeko edo desaktibatzeko.

Pantalla giratoria: gailua horizontalean jartzen denean pantailaren biratze automatikoa aktibatzeko edo desaktibatzeko. Aukera hori ez da aktibatzen mahaigainetik eta jatorrizko aplikazio-tiraderatik.

Decir contraseñas: TalkBack zerbitzua aktibatuta dagoela pasahitzak ozen esateko aukera aktibatzeko edo desaktibatzeko.

Acceso directo a accesibilidad: irisgarritasun-funtzioetarako lasterbide bat NO/SI aukeren bidez aktibatzeko edo desaktibatzeko, horretarako pizteko botoia luze sakatuta soinu bat entzun edo bibrazio bat nabaritu arte eta pantaila bi hatzez sakatuta baieztapena jaso arte.

Síntesis de voz: ahots-sintesiko aukeratarako lasterbidea. Konfigurazio-aukerak hemen ikus daitezke: **Ajustes > Idioma y entrada de texto > Síntesis de voz.**

Retraso pulsación prolongada: aukera bat sakatzen denetik haren barruko aukeretara sartu bitarteko atzerapena konfiguratzeko. Hauek daude aukeran: Corto (lehenetsia), Medio eta Largo.

Mejorar accesibilidad web: aplikazioek beren edukiaren irisgarritasuna hobetzeko script-ak instalatzea aktibatzeke edo desaktibatzeke.

Arranque rápido: sistema azkarrago abiarazteko balio du, sistema ez baita guztiz itzaltzen; hibernazioan geratzen da.



Inprimatzea

Haririk gabeko inprimaketaren funtzioa du, lehenespenez, Android 4.4 bertsioak, eta aplikazioak aukera ematen du zure inprimagailua webgunera konektatzeko ere (galdetu bateragarritasunari buruz inprimagailuaren fabrikatzaileari). Hala, inprimagailua zure smartphonearekin, tabletarekin edo ordenagailu batekin sinkroniza dezakezu, eta edozein lekutatik inprima ditzakezu dokumentuak.



Telefonoaren informazioa

Gailuaren egoera (bateriaren egoera, SIMari buruzko informazioa, serie-zenbakia...), lege-informazioa, Android bertsioa eta modeloa, oinarrizko bandaren eta kernel bertsioa eta konpilazio-zenbakia bistaratzen ditu. Atal honetan, eskuz bila ditzakezu eguneraketak (firmwarearen eguneraketei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, zoaz eskuliburu honen bukaeran dagoen A ERANSKINera.



Garapen-aukerak

Erabiltzaile aurreratuentzat soilik da atal hau. Aplikazio- eta funtzionalitate-garatzailentzako konfigurazio erabilgarriak azaltzen ditu; ez aldatu halakorik erabiltzaile aurreratua ez bazara.


Menuak aukera hauek ditu, besteak beste:

- Errore-txostena sortzea
- Pantaila beti aktibo izatea
- Prozesuen estatistika
- USBa araztea
- Kokapen simulatuak

- GPUaren azelerazioa behartzea
- CPUaren erabilera erakustea
- Bigarren mailako prozesuak mugatzea




Garapen-aukeren menua ezkutatuta egon ohi da Androiden, lehenespenez. Aktibatzeko, sakatu **Ajustes > Información del teléfono**, eta sakatu behin eta berriz azken aukera (Número de compilación). Halako batean, mezu bat bistaratuko zaizu, jakinarazten dizuna garapen-aukerak behar bezala aktibatu direla eta **Ajustes** menu nagusitik sar zaitetzkeela haietara.



ERRENDIMENDU-DOIKUNTZAK

Bateriaren iraupena optimizatzea

Bateriaren iraupena luzatu egin dezakezu, behar ez dituzun funtzioak desaktibatuz. Aplikazioen eta sistemaren baliabideek bateriaren energia kontsumitzeko modua ere kontrola dezakezu. Konfigurazioa optimizatzeko, sakatu **aplikazio-menua** , eta sartu **Ajustes** aukerara.

- WiFi-a, bluetootha edo GPSa erabiltzen ari ez bazara, **Ajustes** atalean konfigura dezakezu, arestian azaldu bezala.
- **Mapas, Navegación** eta halako aplikazioak erabiltzen ari ez bazara, itxi itzazu. GPSa erabiltzen dute, eta energia asko behar dute.
- Konfiguratu zure pantailaren distira **AUTO** aukeran. Jakinarazpen- eta ohar-barra bi hatzekin behera lerratuta aurkituko duzu lasterbidea.
- Ezarri pantaila modu etenera igarotzeko denbora-tarte labur bat, **Ajustes > Pantalla > Suspendir después de** sakatuta.
- Desaktibatu aplikazio guztien sinkronizazio automatikoa, **Ajustes > Cuentas aukeran**, behar ez badituzu behintzat. Zure mezu elektronikoak eskuz sinkronizatu beharko dituzu, eta, eguneraketak egiten direnean, ez duzu jakinarazpenik jasoko.
- Aldatu **hegazkin-modura**, pizteko botoia luze sakatuz aukera hori duen leiho bat bistaratu arte, edo jakinarazpen- eta ohar-barra behera lerratuz bi hatzekin.

Bateriaren erabilerari buruzko xehetasunak kontrolatzea

Zure konfigurazioa optimizatzeko, sakatu **Ajustes > Batería**. Pantailaren beheko aldeko zerrendan, aplikazioen eta gainerako zerbitzuen artean bateria-kontsumoa nola banatzen den azaltzen da. Sakatu grafikoa, xehetasun gehiago eskuratzeko. Aplikazio batzuen xehetasunak jasotzen dituen pantailak botoiak ere baditu; ahalik eta energia gehien aurrezteko konfigurazio-parametroak nola doitu azaltzen dute.

POSTA ELEKTRONIKOA

Gmail kontua konfiguratzea

Zure gailua pizten duzun lehen aldian edo fabrikako datuak berrezarri ondoren (datu guztiak ezabatzen ditu), zure Gmail kontua konfiguratu behar duzu.

Konturik ez badaukazu, halako bat konfiguratzeko eskatuko dizu sistemak, gailuaren funtzionalitateetako batzuetara sartu ahal izateko. Jada kontu bat badaukazu, hasierako konfigurazioan erabil dezakezu.

Aplikazio batzuk ez dira eskuragarri egongo kontua ondo konfiguratu arte.

Aplikaziotik bertatik (zure aplikazio-tiraderan dago eskuragarri), zure sarrerako ontzira sar zaitezke, eta zenbait konfigurazio ere alda ditzakezu, hala nola mezuak bistaratzeko, erantzuteko edo irakurtzeko modua; jakinarazpenak; edota kontu bat baino gehiago gehitu ditzakezu, helbide bat baino gehiagotako mezuak aldi berean jasotzeko.

Posta elektronikoko beste kontu batzuk konfiguratzea

Kontuaren domeinua edozein dela ere mezu elektronikoak bidali eta jaso ahal izateko, **Correo** izeneko aplikazio bat dago aplikazio-tiraderan edo **pantaila nagusian**.

Aplikazio hori erabiltzen duzun lehen aldian, helbide elektroniko bat eta pasahitz bat idazteko eskatuko dizu, irudi honetan bistaraten den bezala.

1. Sartu zure helbide elektronikoa. Sakatu **Siguiente**.
2. Konfiguratu kontuaren aukerak (sinkronizazioa, jakinarazpenak...).
3. Ezizen bat jar diezaiokezu kontuari, errazago identifikatzeko.
4. Konfigurazioa bukatu ondoren, baliteke sinkronizatzeko zenbait minutu behar izatea, pantailan mezu guztiak bistaratu arte.



Mezu elektronikoak bidaltzea

1. Ireki **Correo** aplikazioa, sakatu **Redactar** botoia.
2. **Idatzi** hartzailearen helbide elektronikoa, gaia eta mezua.
3. Sakatu **bidaltzeko** botoia ➤.

Fitxategi erantsiak bidaltzeko edo hartzaileak gehitzeko CC edo CCO atalean, sakatu  botoia, eta aukeratu dagokion aukera goitibeherako zerrendan.

Mezu elektroniko bati erantzutea


Eskuragarri dauden hiru aukeretako edozeinekin erantzun diezaiekegu irekita ditugun mezuei:

- **Responder:** kateko azken mezua bidali duenak soilik jasoko du erantzuna.
- **Responder a todos:** azken mezua bidaltzaile gisa ikusgai zeuden erabiltzaile guztiek jasoko dute erantzunaren kopia bat.
- **Reenviar:** bidaltzaileetako bat ez den beste erabiltzaile bati bidal diezaiokezu mezu-kate baten edukia.

Posta elektronikoko bezero batzuetan, birbidaltzeko aukerak soilik mantentzen ditu aktibo aurreko mezua fitxategi erantsiak.

MULTIMEDIA

Kamera

Zure smartphoneak bi kamera ditu: bat aurrean, eta, bestea, atzean. Aktibatzeko, sakatu **Menú de aplicaciones > Cámara**. Bi kameretako bat hautatzeko, sakatu dagokion ikonoa  pantailaren beheko eskuineko aldean, eta trukatu sakatze bakoitzean aurreko eta atzeko kamerak. Biek ematen dute aukera irudiak eta bideoak egiteko, baina bereizmen desberdinak dituzte. Atzeko kamerak bereizmen handiagoa du. Gainera, atzeko kamerak autofocus eta flash funtzioak ere baditu.




Irudi bat ateratzea edo bideo bat grabatzea aukeratzeko, sakatu pantailaren beheko erdialdeko ikonoetako bat; obturadorearen irudia (eskuinekoa) argazkiak ateratzeko da, eta kameraren irudia (ezkerrekoa), bideokamera erabiltzeko.


Gainera, argazkiak ateratzeko aurrez zehaztutako moduetako batzuk ez daude eskuragarri aurreko kamerarako.

Argazki eta bideoetan **zooma** erabiltzeko, atximur egiteko keinua erabil daiteke eszenaren aurrebistan, argazkia atera aurretik.

Argazki- eta bideo-doikuntzak

Ajustes  ikonoa sakatuz gero (kameraren aplikazioaren beheko ezkerreko ertzean dago), menu batean sartuko zara. Han, doikuntza orokorrak, argazki-doikuntzak eta bideo-doikuntzak dituzu:

· Ajustes generales  .



Información de ubicación: gaitu ezazu zure multimedia-fitxategia sortzean hura sortu zen lekuan bertan gorde dadin.

Exposición: irudiaren esposizioa doitzen du, 3 eta -3 arteko balioekin. Lehenespenez, 0 balioan egon ohi da.

Efecto de color: multimedia-fitxategiei efektuak gehitzeko.

Modo de escena: zenbait doikuntza konfiguratzeko, uneko baldintzen eta argiztapen-motaren arabera. Lehenespenez, automatikoa ezarrita egon ohi da.


Balance de blancos: zazpi argi-gioren artean aukeratzeko. Lehenespenez, automatikoa ezarrita egon ohi da.

Propiedades de imagen: aukeratu Bajo, Medio edo Alto balioak, argitasunerako, ñabarduretarako, saturaziorako, distirarako eta kontrasterako. Lehenespenez, Medio aukeran ezarrita egon ohi da.

Antiparpadeo: aukeratu automatismo bat, distira-/keinu-efektua kentzeko. Deskatibatzeko aukera ere baduzu.

Restaurar valores predeterminados: kameraren fabrikako doikuntzetara itzultzeko.

· Argazki-doikuntzak 



Ajustes de cámara fotográfica ZSD: irudi-egonkortzailea aktibatzen/desaktibatzen.

Captura de voz: ahots-komandoen bidez argazkiak ateratzeko funtzioa aktibatzen/desaktibatzen. Ezagutza-hizkuntza doitzeko, sakatu **Ajustes > Idioma e introducción de texto**, ahots bidez argazkiak ateratzeko atalean.

Detección de rostro: argazkiak automatikoki detektatzeko aukera aktibatzen/desaktibatzen.

Disparo sonrisa: irribarrea detektatzean automatikoki argazkia ateratzea aktibatzen/desaktibatzen.

HDR: High Dynamic Range argazkiak ateratzeko modu bat da. Irudien kontrastea nabarmentzen du, 3 argazki ateraz bakoitza esposizio batekin eta irudi bakar batean gainjarriz.

Detectar escena aut.: argiztapen-baldintzak eta irudi-mota automatikoki detektatzeko aukera aktibatzen/desaktibatzen.

Temporizador: argazkien tenporizadorea doitzeko (2s, 10s edo desaktibatuta).

Disparo continuo: Argazkiak ateratzeko botoia denbora luzez sakatuta edukiz gero zenbat argazki aterako diren konfiguratzeko (40 edo 99 argazki).


Tamaño imagen: kalitatea konfiguratzeko, QVGAtik hasi eta 18 Mpx-erainoko balioekin.

Tamaño de vista previa: irudien aurrebistaren tamaina doitzeko. Pantalla completa eta Estándar (4:3) dituzu aukeran.

ISO: daukazun argiaren arabera sentsorearen sentsibilitate-maila aukeratzeko. AUTO eta eskuzko modua aukeratzeko, 100etik 1.600erainoko balioekin.

Belleza facial: Belleza de rostro aurrez ezarritako modua aukeratzuz gero funtzionatzen du doikuntza honek. Irudiak hobetzeko hainbat aukera dituzu.

· Bideokamera-doikuntzak 



EIS: bideo-egonkortzailea aktibatzeko/desaktibatzeko.

Micrófono: audio-grabaketa aktibatzeko/desaktibatzeko.

Modo de audio: Normal eta Reunión (gailuarengandik urrun dauden lekuetatik ahotsak grabatzeko). Modua editatzeko, mikrofonoak aktibo egon beharko du.

Intervalo de tiempo (*time-lapse* edo **bideoa kamera azkarrean**): grabatutako argazki/fotograma bakoitzak iraungo duen denbora ezar dezakezu, 1 s-tik hasi eta 10 s-raino. Kamera azkarreko bideo batean, segundo bakoitzean, 30 fotograma sartu behar dira. Zenbat eta azkarragoa izan atera nahi duzun eszena, orduan eta denbora-tarte laburragoa aukeratu beharko duzu.

Calidad de vídeo: zehaztu, 4 aukeraren artean, zure bideoaren kalitatea.

Aurrez definitutako irudi-moduak

Pantailaren goiko aldean dituzu aurrez zehaztutako moduetarako lasterbideak. Hatzak alboetara lerratuz mugi zaitezke. Besteak beste, argazki panoramikoak eta angelu desberdinetakoak atera daitezke.

Sakatu argazki panoramikoaren ikonoa; aurrerapen-barra bat bistaratuko da, telefonoarekin egin dezakezun mugimendua adierazteko. Horizontalean nahiz bertikalean atera dezakezu argazki panoramikoak. Gezi batek lagunduko dizu mugitzen, argazkiak bat etor daitezen. Aurrerapen-barra bukaerara iristen denean (9 argazki), eszena automatikoki gordeko da. Bederatzi irudi baino gutxiago aterata ere gera dezakezu argazki panoramikoak, prozesuaren erdian ados botoia sakatuta.

Irudi-galeria




Zure gailuan gordetako irudiak eta bideoak ikusteko, sakatu **Galería** ikonoa (**pantaila nagusian** nahiz aplikazio-tiraderan duzu).

Galería aukeraren pantaila nagusian, gailuaren zenbait kokapenetan gordetako irudiak eta bideoak ikus ditzakezu.

Sakatu karpitetako bat, haren barruko elementuak ikusteko. Irudi bat ikusteko, sakatu irudia bera. Bideo bat ikusteko, sakatu bideoa bera, eta **bideo-erreproduzitzailera** sartuko zara.

Kamerarekin argazki bat atera edo bideo bat grabatu ondoren ere sar zaitezke galeriara, beheko eskuineko ertzean bistaratuko den miniaturaren bidez.

Irudi bat bistaratzen ari zarela, funtzio hauetara sar zaitezke:

- Menu-botoia edo  ikonoa sakatuz gero, aukera hauek dituen zerrenda bat bistaratuko da: **Borrar, Presentación, Girar a la izquierda/derecha, Editar, Recortar, Establecer como, Detalles** eta **Imprimir**.
-  ikonoa sakatuz gero, zerrenda bat bistaratzen da, fitxategia partekatzeko aukera ematen duten aplikazio eta sare sozial bateragarriena.
-  ikonoa sakatuz gero, irudia editatzeko programa irekiko da (iragazkiak, markoak, distira...).

Irudiak bistaratzean zooma egiteko, nahikoa da pantaila bi aldiz ukitzea, irudia handitzeko. Gauza bera egin behar da txikitzeko ere. Atximur eginez ere lortzen da: hatzak bereizi egin behar dira irudia handitzeko, eta elkartu, zooma txikitzeko.



Androidek ez du uzten, lehenespenez, karpeta berriak sortzen eta irudiak karpeta batetik bestera eramaten. Edonola ere, hirugarren batzuen doako aplikazioak erabiliz egin daitezke horiek guztiak, besteak beste. Aplikazio horietako bat da zure bq smartphoneak dakarren fitxategi-arakatzaille integratua. Gainera, zure irudi-karpeta antolatzeo aukera ere badago, zure smartphonea USB bidez biltegitratze masiboko moduan konektatuz PCra.

Musika erreproduzitzea

Zure smartphoneak audio-erreproduzitzaile bat dakar lehenespenez. Harekin, zure audio-fitxategi gogokoenak erreproduzitzeaz gainera, musika berria erosi eta deskargatu dezakezu, edozein unetan eta edozein lekutan erreproduzitzeko, dendarekin integratuta baitago.



Zure gailura musika gehitzeko, bi aukera dituzu:


- Telefonoa PCra konektatu biltegitratze masiboko moduan, eta musika guztia transferitu telefonoaren barne-biltegitratzera. Horretarako, nahikoa da emandako kablea konektatzea PCra eta telefonora, karpetak ordenagailuko kokapenetik koptatu eta Music karpetan itsasteko (zure telefonoaren barne-biltegitratzean edo microSD txartelean duzu karpeta hori, halako txartelik sartu baduzu).
- Aplikazioan bertan, menu nagusian (goiko ezkerreko ertzeko botoia), dendarako esteka bat aurkituko duzu. Handik, hainbat disko eta abesti bila ditzakezu, gero erosi eta zure multimedia-bildumara gehitu ahal izateko.

Musika gehitu ondoren, menu nagusian aurkituko duzu, **Mi música** sakatuta. Han, musika-generoen, artisten, albumen edo abesti-zerrenden arabera antola dezakezu.

Bilaketa bat egin dezakezu zeure abesti-liburutegian, deskribapenean testu bera duten albumak, abestiak eta abar bilatzeko.

Zein abesti entzun nahi duzun erabakitzen duzunean, sakatu. Barra-animazio bat hasiko da mugitzen, unean erreproduzitzen ari den pista erakutsiz. Erreprodukzio-panela irekitzeko, sakatu pantailaren beheko aldeko barra. Panel horren bidez, zenbait aukera hauta ditzakezu: etengabeko erreprodukzioa (ezkerreko ikonoa; eduki osoa amaitu ondoren, berriz erreproduzitzen du zerrenda), aurreko pista, geldialdia, hurrengo pista edo ausazko erreprodukzioa.

Ikuspegi horretan, gainera, abestia gustatzen zaizun ala ez adieraz dezakezu,  eta  ikonoak erabiliz. Aukera gehiago ere badaude, goiko eskuineko ertza  sakatuta. Besteak beste, pista bat lehendik dagoen playlist batera gehitu daiteke, edo berri bat sortu.

Aplikazioaren menu nagusian, erreprodukzio-zerrenden aukera bistaratzen da. Aurrez sortu dituzun zerrendak jasotzen dira han, bai eta Me gusta izeneko bat ere. Han aurkituko dituzu  ikonoarekin markatu dituzun pistak.



Zerrendak bistaratzeko aplikazioak erabiltzen duen informazioa (artista, albuma...) ordenagailu batetik alda daiteke, saguaren eskuineko botoia sakatzuz aldatu beharreko fitxategiaren gainean eta **Propiedades > Detalles** aukeratuz goitibeherako menuan eta leiho gainerakorrean.

Bideoak erreproduzitzea

Aplikazio-tiraderan, **Videos** aukera aurkituko duzu. Aplikazio horrek aukera ematen dizu zure gailuan gordetako bideo guztien zerrenda egiteko eta erreproduzitzeko, ebakitzeko...

Aplikazioa irekitzen duzunean, eskuragarri dauden bideoen zerrenda bistaratuko zaizu. Aukeratutako sakatzuz gero, erreproduzitzen hasikoda automatikoki. Beheko eskuineko ertzean, ikono bat aurkituko duzu, hainbat aukera ematen dizkizuna: hautatutako zoom-mota, jatorrizko formatua (itxura errespetatuz), pantaila osoa irudia deformatuz eta pantaila osoa irudia ebakiz.

Gainera, goiko paneletik, fitxategia zenbait aplikaziorekin parteka dezakegu, begizta erako erreprodukzioa aukeratu edo fitxategia ebaki. Azken aukera horrekin, bideoa non hasi eta non buka dadin nahi dugun aukeratu dezakegu. **Guardar** botoia sakatuta, fitxategi bat sortzen da, aukeratutako zatia soilik hartzen duena.

APLIKAZIOAK

Aplikazioen denda

Aplikazioen dendan, hainbat eratako programak, jokoak, musika, filmak, liburuak eta abar deskargatu ditzakezu. Deskarga-mota bakoitzean, azpikategoriak izango dituzu, une bakoitzean behar duzun hori intuizioz aurkitu dezazun.



Garrantzitsua: kontuan izan deskarga guztiak ez direla doakoak. Baliteke batzuek kostu gehigarriak izatea. Doakoak ez diren deskarga guztietan, deskargaren prezioa bistaratuko da aplikazioari buruzko informazioarekin batera, eta deskarga baieztatzeke eskatuko da, nahi gabeko kargurik ez egiteko.

Jatorri ezezaguneko aplikazioak


Batzuetan, baliteke jatorrizkoa ez den aplikazio-denda batetik edo zuzenean webgune batetik aplikazioak eta/edo jokoak deskargatu nahi izatea. Normalean sinadura elektronikorik gabe etortzen diren aplikazio horiek instalatzeko, sistema konfiguratu behar dugu aldeaz aurretik, jatorri ezezaguneko aplikazioak instalatzea onar dezan. **Ajustes > Seguridad** menuan, markatu **Orígenes desconocidos** kontrol-laukia. Gero, segurtasun-oharra onartu beharko duzu. Gogoan izan iturri fidagarrietako aplikazioak soilik instalatu behar direla.



Webgunetik deskargatutako halako aplikazioak instalatzeko, *.apk fitxategia izan behar dugu gure gailuan. Ohikoa da halako fitxategiak WinRAR erako programa batekin konprimatuta egotea. Beraz, deskargatutako fitxategia *.rar erakoa bada, deskonprimatu egin beharko dugu, PCa edo Android fitxategi-kudeatzaileak erabiliz, hala nola **ES Explorador de archivos** (zure gailuan integratua).

*.apk fitxategia irekitzean, aplikazioa instalatzeko baieztapena eskatuko du sistemak. Mezu hori onartuz gero, aplikazioa instalatuta geratuko da.

Aurrez instalatutako aplikazioak


Aurrez instalatutako aplikazioen zerrendara sartzeko,  ikonoa sakatu behar duzu **pantaila nagusian**. Handik, zure gailuan instalatutako aplikazio guztietara sar zaitezke.

Web-nabigatzailea

Zure web-nabigatzailetik nabigatzean, zenbait fitxa erabil ditzakezu, zenbait URL aldi berean irekitzeko. Horretarako, sakatu goiko eskuineko ertzean dagoen ikono karratua, zenbaki bat duena. Unean zenbat fitxa dauden aktibo adierazten du zenbaki horrek. Ikonoa sakatuz gero, aktibo dauden fitxetako bat aukeratu dezakezu, edo beste bat ireki. Beste bat irekitzen duzunean, eskuz sar dezakezu URL bat goiko zuriunean, edo pantailaren erdialdean bistaratzen diren iradokizunak erabil ditzakezu (maizen bisitatzen diren orrialdeetan oinarrituak dira iradokizunak).

Fitxa bat ixteko, fitxen ikonoa sakatzean (goiko eskuineko ertzeko koadroa, zenbaki bat duena), **X** sakatu behar duzu, edo, bestela, itxi nahi duzun fitxan sakatu eta eskuinera edo ezkerrean arrastatu.

Menu-botoia  sakatuz gero, aukera hauek dituen zerrenda bat bistaratzen da:

- **Volver hacia atrás o adelante:** azkena bisitatutako orrialdeetara atzera egiteko eta, gero, azkena bisitatutakora itzultzeko.
- **Añadir marcador**  : orrialde bat gogoko gisa markatzeko; hartara, gero, erraz berreskura daiteke. Markagailuak karpetan antola daitezke.
- **Nueva pestaña:** fitxak gehitzeko, zenbait orrialdetan aldi berean nabigatzeko.

- **Nueva pestaña incógnito:** fitxa batean nabigatzeko, fitxa hori historian erregistratuta geratu gabe.
- **Marcadores:** gordetako markagailuen erregistrora sartzeko.
- **Otros dispositivos:** erabiltzaile-izen eta pasahitz berarekin saioa hasia duten zenbait gailuren artean nabigazio-informazioa partekatzeko.
- **Historial:** bisitatutako webguneak berreskuratzeko, kronologikoki ordenatuta (berrienak goian).
- **Imprimir:** uneko orrialdea inprimatzeko, haririk gabeko inprimagailu bateragarri baten bidez.
- **Buscar en la página:** aktibo dagoen webgunean testu jakin bat bilatzeko.
- **Ver como ordenador:** kontrol-laukia markatuz gero, ordenagailuan bezala bistaratzen da webgunea, gailu mugikorretarako bertsio bereziei kasurik egin gabe.
- **Ajustes:** nabigatzailearen oinarrizko doikuntzen eta doikuntza aurreratuen menura sartzeko.
- **Ayuda y opiniones:** beste erabiltzaile batzuen iritzietara sartzeko, zeurea uzteko eta laguntza-dokumentura sartzeko.

Berehalako mezularitza

Berehalako mezularitzarako aplikazioarekin, zure posta elektronikoko kontua eta telefono-zenbakia konfigura ditzakezu, lagunekin txat bidezko elkarrizketak izateko, eta SMSGarako motor lehenetsi gisa ere konfigura dezakezu.

Testuen, kalkulu-orrien eta aurkezpenen editorea

Kudeaketa-tresna honekin, dokumentuak, kalkulu-orriak eta aurkezpena sortu eta edita ditzakezu. Aplikazioa zure Drive kontuarekin sinkronizatzeko aukera ere baduzu; hala, zure fitxategiak hodeian gorde ditzakezu, eta urrunetik haietara sartu, bateragarria den edozein gailutatik. Bateragarria da Word, Excel eta Powerpoint formatuekin, eta aukera ematen du PDF fitxategiak irakurtzeko ere. Aplikazio horretatik, gainera, fitxategiak zuzenean erantsi ditzakezu mezu elektronikoetan.

Egutegia

Calendario tresna erabiliz, zure eguneroko zereginak kudea ditzakezu, eta zure postaelektronikoarekin sinkronizatu, kontaktuekin hitzordua, bilerak eta gertaerak partekatu ahal izateko. Gainera, alertak eta jakinarazpenak konfiguratzeko ere balio du, inoiz hitzordurik ez ahazteko. Bestalde, aplikazioak aukera ematen du egutegia sinkronizatzeko, beste edozein gailu mugikorretatik ikusi ahal izateko.

Gertaera berri bat sortzeko, aukeratu **Opciones > Nuevo evento**, edo sakatu, zuzenean, **+** ikonoa. Egutegiko edozein eremu libre sakatuta bistaratzen da ikono hori. Hainbat gauza aukeratu ditzakezu: gertaeraren data eta ordua, bilera egingo den lekua, gonbidatuak, alertak aktibatzea/desaktibatzea, gertaeraren deskribapena edota bileran zauden bitartean zure kontaktuek ikusiko duten egoera.

Mapak eta GPS nabigazioa

Zure smartphoneko **Mapas** aplikazioa erabiliz, zure uneko kokapena ikus dezakezu mapa batean (zehaztasun gehiago izateko, aktibatu sistemaren GPS kokapena), bai eta satelite batetik ateratako irudiak edota kokapen jakin baten inguruko ikuspegi erreala ere. Gainera, nabigazio-aukera hauta dezakezu, uneko kokapenetik zure helburura nola iritsi jakiteko argibideak bidal diezazkizun gailuak. Oinez edo ibilgailuan joateko konfiguratu dezakezu. Atxikitako hainbat eta hainbat enpresa eta establezimendu aurkitzeko zerbitzua ere eskaintzen du.

Kontuan izan informazio hori guztia (mapak barne) ez dagoela zure gailuan aurrez kargatuta. Beraz, nabigazioa erabiltzen duzun bakoitzean, datuak erabili beharko dira, eta baliteke horrek kostua izatea, telefonia mugikorreko zure operadorearekin kontratatuta daukazuen tarifaren arabera.

Fitxategi-arakatzailea

Aplikazio honekin, zure gailuaren barne-memorian nahiz microSD txartelean (sartuta badago) gordetako fitxategi-karpetak araka ditzakezu. Gainera, fitxategiak kopiatzeko eta karpeta batetik bestera mugitzeko ere balio du. Fitxategiak deskonprimatzeko eta zure smartphonea ordenagailu batera konektatu gabe haien edukia ateratzeko sistema bat ere badu. Fitxategiei izena aldatu eta karpeta eta fitxategi berriak ere sor daitezke.



Multimedia-edukiak dituzten karpetak ezkutatu egin daitezke, galerian bistaratu ez daitezen. Horretarako, **fitxategi-arakatzaitik** sartu behar duzu ezkutatu nahi duzun karpetara, eta, barruan zaudenean, sakatu **+** ikonoa (berria) duen botoia, hautatu **Archivo**, eta jarri “.nomedia” izena. Azkenik, sakatu **OK**. Karpeta hori berriz **galerian** bistaratzeko, nahikoa da sortutako fitxategia ezabatzea. **Fitxategi-arakatzaitik** ere sar zaitezke karpeta ezkutu horretara eta haren edukira nahi duzun guztietan.

Dolby

Dolby aplikaziora sartu eta zure gailuaren soinua hobetzeko, sakatu **Menú de aplicaciones > Dolby. Bideo-erreproduzitzaitik** ere konfiguratu dezakezu, **Lanzar aplicación** sakatuta.

Aplikazioaren barruan, lau modu lehenetsietako edozein aukeratu dezakezu, edo **Perfil** aukeran ere egin dezakezu zuzenean: **Vídeo, Música, Juego edo Voz**.

Moduetako edozeinetan sartzen bazara, ekualizadore grafiko bat aurkituko duzu, zeinak aukera emango baitizu zuzenean ekualizazio-uhinak doitzeko, hatzaz pantaila ukituta. Soinua hobetzen duten ekualizadore adimendunetako bat ere aukeratu dezakezu: **Abierto, Sonoro, Centrado** edo **Personalizado**. Moduetako edozein eskuz doitzen baduzu, ikonoa bistaratu da **Ecualizador inteligente** aukeretan hautatu duzunaren alboan, edo **Ecualizador gráfico: Personalizado** aukeraren alboan. Ikonoa sakatuz gero, hasierako balioak berrezarriko dituzu, eta eskuz egindako doikuntzak ezabatu.

Nivelador de volumen aktibatuz gero, bolumen-maila konstantea izango duzu eduki eta aplikazio guztietarako, gailuaren bolumena kontrolatzeko atalean ezarritako mailaren arabera.

Mejorador de diálogo aktibatuz gero, multimedia-euskarri guztietako ahotsaren argitasuna indartuko duzu.

Virtualizador surround aktibatuz gero, soinu inguratzaile errealista sortuko duzu era guztietako entzungailu edo bozgorailu estereoetarako (gailuari kanpoko entzungailu edo bozgorailu batzuk konektatuz gero soilik dago eskuragarri funtzio hori).

Dolby ikonoa aktibatuta agertuko da instalatuta dauzkazun bideo- edo musika-erreproduzitzaitan, eta audio- edo bideo-fitxategien soinua hobetuko du. Desaktibatzeko, sakatu **⏻**.



Beren ekualizadorea duten aplikazio batzuk erabiliz gero, Dolby desaktibatu egingo da automatikoki, bi ekualizadoreen artean gatazkarik izan ez dadin.


Genie Widget



Aplikazio honek eguraldiari buruzko informazioa ematen du denbora errealean, bai eta interes orokorreko nazioarteko albisteak ere. Aplikazioaz gainera, 3 widget konfiguratu ditzakezu smartphonearen mahaigainean, informazioa azkarrago eta erosoago eskuratzeko. Hiru widget horiek eguraldiari buruzko informazioa edo nazioarteko albisteak ematen dituzte, edota biak batera.

Gogoratu eskuliburu honetan aldez aurretik azalduko **pantaila nagusiko** pertsonalizazio-atala kontsultatu behar dela mahaigainean widget berriak nola gehitu jakiteko.

TRESNAK

Kalkulagailua

Kalkulagailu praktiko bat da zure smartphonearen tresnetako bat. Oinarrizko eragiketak nahiz zientifikoak edo aurreratuak egiteko balio ditu. Aplikazioa martxan jartzean, oinarrizko eragiketak soilik ikusiko dituzu pantailan, baina, pantaila ezkerrera lerratuta edo **menu-botoia**  eta **Funciones avanzadas** sakatuta, aurreratuak ere ikusiko dituzu.




Erlojua

Menú de aplicaciones > Reloj aukeran, lehen fitxan, **Alarmas** aukera daukazu. Zure alarma guztiak erraz kudeatzeko balio du.

Aldi berean alarma bat baino gehiago konfiguratu ditzakezu, eta haien parametroak zehaztu, hala nola alarmaren izena, errepikatu egin behar duen edo behin bakarrik jo behar duen, errepikatzeotan asteko zein egunetan errepikatu behar duen, alarma-tonua eta bibrazioa aktibatzea/desaktibatzea.

Nahi adina alarma berriak sortu eta ezaba ditzakezu. Alarma bat aldi baterako aktibatzeke edo desaktibatzeke baina ez ezabatzeke, nahikoa da alarmaren aktibazio-orduaren eskuinean dagoen botoia ezkerrean lerratzea.

Reloj aplikazioan, funtzio gehiago ere badituzu: munduko edozein puntutako ordua bistaratzea, atzerako kontaketa konfiguratu dakioken tenporizadorea edo tarte-funtzioa duen kronometro erabilgarri bat.



Grabagailua

Zure bq smartphonearen tresnetako beste bat da **ahots-grabagailua**. Harekin, erraz graba ditzakezu audio-pistak, grabaketa-kalitatea (alta edo estándar) eta grabaketa-modua konfiguratuta (**Normal**, **Reunión** edo **Conferencia**).

Grabatzen hasteko, sakatu pantailaren beheko ezkerreko aldean dagoen puntu gorria. Goiko kontagailua eta neurgailua mugitze hasiko dira. Grabaketa gelditzeko edo amaitzeko, pantailaren behealdeko botoiak erabil ditzakezu. Gelditzeko botoia sakatuz gero, sistemak galdetuko digu grabaketa gorde edo utzi egin nahi dugun. Gordez gero, gainerako grabaketekin batera aurkituko duzu, **☰** botoia sakatuta.

FM irratia

Aplikazio-tiraderan, **Radio FM** izeneko bat duzu.

Aplikazio horrek aukera ematen dizu zure irrati-kate gogokoenak entzuteko eta emisio bat zure telefonoaren memorian gordetzeko. Katea sintonizatzeke eta dialean mugitzeko, sakatu aplikazioaren beheko panelean dauden **< >** botoiak, eskuz bilatzeko, edo sakatu **◀ ▶** botoiak, automatikoki bilatzeko. Bestela, aurkitu eskuragarri dauden maiztasun guztiak más opciones eta buscar botoiekin.

☰ ikonoa sakatuta bistaratuko den kate-zerrendan, zure **gogoenak** marka ditzakezu, izarraren ikonoa sakatuta. Gainera, gogoko gisa markatu ondoren, luze sakatzen badituzu, izena edita dezakezu, zerrendan errazago identifikatzeko.

Más opciones menuan, **Altavoz** aukera hauta dezakezu, soinua zure telefonoko entzungailuetan erreproduzitu dadin entzungailuetan erreproduzitu orde. Halaber, **Grabar FM** aukerarekin, zure gailuan gorde dezakezu uneko emisioa.



Gailura entzungailu batzuk konektatu behar dira irrati-aplikazioa erabiltzeko, entzungailuek berek egiten baitute antena-funtzioa.

Ahots bidezko bilaketa

Pantaila nagusian, aurkitu mikrofonoaren ikonoa duen widgeta. Hark eramango zaitu ahots bidezko bilaketako aplikaziora. Aplikazio horren bidez, edozein gairi buruzko informazio-bilaketak egin ditzakezu azkar-azkar, eta beste aplikazio batzuekin ere lotu dezakezu, hala nola Mapas aplikazioarekin.

ERANSKINAK

A ERANSKINA: OTA eguneratzeak

OTA siglek “Over the air” esan nahi dute ingelesez; alegia, “airetik”. Esan nahi du zure gailuradatu-konexiobaten bidez iristendirela firmware-eguneraketak, erabiltzaileak ia esku hartu gabe, eta bestelako eguneratze-prozedura konplexuagoen beharrik gabe.

Zure gailuak aldi behin bilatuko ditu sistema eragilearen eguneraketak, zeinek errendimendu-hobekuntzak edo funtzio gehigarriak izaten baitituzte zure smartphonerako. Sistemak eguneraketa bat aurkitzen duenean, leiho gainerakor batek emango dizu horren berri, eta onespina eskatuko dizu instalazioa egiteko. Eguneraketaren datu-paketea deskargatzeko WiFi-a erabiltzea gomendatzen da.

Prozesuak gidatu egingo zaitu instalazio guztian, dena erraz eta eroso egiteko.

Eskuz ere begiratu dezakezu eguneraketa-paketerik badagoen, bide honetatik joanda: **Ajustes > Información del teléfono > Actualización**.

Mezu batek jakinaraziko dizu eguneraketarik badagoen aztertzen ari dela sistema. Halakorik badago, sistemak berak eguneraketa eskaintzen duenean jarraitzen den bera izango da prozesua.

B ERANSKINA: zehaztasun teknikoak

Zure modelo esteka honetan aukeratuta sar zaitezke informazio tekniko guztira:
www.bq.com/smartphones.html

Esteka horretan, zure smartphone-modeloa aukeratu ondoren, deskribapen osoa ikusi ahal izango duzu, goiko paneleko **Especificaciones** atala sakatuta.

Taulan, informazio interesgarria aurkituko duzu, hala nola:

- Tamaina eta pisua
- Pantaila
- Barne-memoria
- Prozesadorea
- Bateria
- Sistema eragilea
- Konektagarritasuna
- Sistemaren funtzioak

C ERANSKINA: garbiketa segurtasuna

Garbiketa

Gailua garbitu aurretik, itzali, eta deskonektatu sistemako eta elikadurako kable guztiak. Ziurtatu pantaila guztiz lehor dagoela berriz kableak konektatu eta piztu aurretik. Ez erabili inolako likidorik edo sprayrik zuzenean pantailaren edo karkasaren gainean.




Pantailan: erabili zapi leun bat, garbia eta litsik askatzen ez duena, pantailako hautsa eta zikina kentzeko. Hatz-markak eta orbanak kentzeko, erabili zapi bat eta garbiketa-produktu leunak.

Karkasa: garbitu zapi heze leun batekin eta garbitzeko soluzio leun batekin. Busti zapia ur garbiarekin, xukatu ondo, eta garbitu karkasa, garbigarri-hondakin guztiak kentzeko.

Segurtasuna

Istripu-arriskuak murrizteko, jarraitu segurtasun-jarraibideei:

- Ez erabili elikatze-kable edo konektore hondaturik, ez eta entxufe solterik ere. Ez tolestu eta ez hondatu elikatze-kablea. Ez ukitu elikatze-kableak esku bustiekin, eta ez egin tira kabletik kargagailua deskonektatzeko.
- Ez erabili gailua kargatzen ari den bitartean, eta ez ukitu esku bustiekin.
- Ezkolpatuetaezutzierortzenkargagailuari,etaezkargatubateriafabrikatzaileak onartu gabeko kargagailuekin.
- Ez erabili gailua tximista-ekaitza dagoenean. Kontuz erabili eta bota bateriak eta kargagailuak.
- Ez manipulatu hondatuta dauden edo ihesak dituzten litio-ioizko bateriak.
- Ez erabili telefonoa taupada-markagailuetatik gertu. Ahal dela, ez erabili gailua taupada-markagailuetatik 15 cm-ra baino gutxiagora, gailuak interferentziak eragin baititzake.
- Ez erabili gailua erietxeetan, ez eta irrati-maiztasunaren ondorioz interferentziak sor ditzaketen ekipo medikoetatik gertu ere.
- Ekipo medikoak erabili ohi badituzu, ziurtatu irrati-maiztasunetik babestuta daudela. Audifonoa erabiltzen baduzu, jakinarazi fabrikatzaileari, interferentziei buruzko informazioa eskuratzeko.

- Lehergaiak egon litezkeen inguruetan, itzali gailua bateria kendu beharrean. Bete beti arauak, jarraibideak eta ohar-seinaleak .
- Ez erabili gailua erregaia hartzeko lekuetan (zerbitzuguneak), ez eta gai kimikoen ondoan eta eremu leherkorretan ere .
- Ez biltegiratu eta ez eraman suak har dezakeen likidorik, gasik edo leher daitekeen materialik gailua eta haren piezak edo osagarriak doazen leku berean .
- Itzali gailua hegazkinean zaudenean. Baliteke ibilgailu motordun baten gailu elektronikoek behar bezala ez funtzionatzea gailuaren irrati-maiztasuna dela eta.
- Soinu-presio handia denbora luzez jasanez gero, baliteke entzumenean betirako kalteak eragitea. Ez erabili entzungailurik trafiko eta zarata handiko lekuetan bizikletan, lasterka edo oinez zabiltzala.
- Telefonoaren erabilera autoa gidatzen den bitartean. Auto-fabrikatzaile batzuek galarazi egiten dute telefono mugikorrek erabiltzea marka horretako autoetan, instalazioak esku libreko gailua eta kanpo-antena bat ez baditu. Galdetu autoa erosi duzun saltokian zure telefono mugikorrek edo bluetooth esku-librekoak interferentziarik sortzen duten autoaren sistema elektronikoan. Arretaz gidatu beti, eta errespetatu gidatzeko garaian haririk gabeko gailuen erabilera mugatzen duten tokiko araudiak eta legeak.
- Kokapenetan oinarritutako funtzioak/GPS Kokapena zehazten duen funtzioa “bere horretan” eta “ondorio guztietarako” ematen da. Mundo Reader SLk ez du ematen inolako bermerik ematen kokapenari buruzko informazioaren zehaztasunari buruz.
- Kokapenean oinarritutako informazioa erabiltzen ari bada gailua, etenak edo akatsak gerta daitezke, eta sarearen erabilgarritasunaren mendekotasuna areagotu egiten da. Kontuan izan funtzio hori murriztua edo erabilezina izan litekeela zenbait tokitan, eraikinen barruan edo eraikinetatik gertu dauden tokietan, adibidez.
- Kontuz ibili GPSaren funtzionalitatea erabiltzean, gidatzean arretarik ez galtzeko.
- Larrialdi-deiak Ezin daiteke bermatu deiek egoera guztietan funtzionatuko dutenik. Larrialdi-deietarako, ez fidatu inoiz telefono mugikorrez bakarrik. Telefonia mugikorreko sare batzuk, sare-zerbitzu batzuk edo telefonoaren funtzio batzuk aktibatuta egonez gero eta inguru batzuetan ezin da deirik egin.

- Antena. Mundo Reader SLk emandakoa ez den antena batekin erabiltzen bada gailua, baliteke kaltetzea, errendimendua murriztea eta legeak ezarritakoen gaineko SAR mailak sortzea (ikus C eranskina, hurrengo orrialdean). Ez estali tapa eskuarekin; izan ere, horrek eragina izango du deiaren kalitatean eta energia-mailetan, eta elkarrizketako eta itzaroteko denborak murriztu ditzake.
- Hegazkin-modua. Baliteke bluetooth eta WLAN funtzioak erabiltzea debekatuta egotea irrati-transmisioak onartuta ez dauden hegazkinetan edo beste gune batzuetan. Gune horietan, eskatu baimena bluetooth edo WLAN funtzioak gaitu nahi izanez gero, baita hegazkin-modua erabiltzeko ere.

Adi!

Ezaugarri hauek dituzten elikadura-iturriekin erabili behar da produktu hau:

INPUTa: 100-240 V ~ 50/60 Hz 0.3 A max.

OUTPUTa: 5.0 V $\bar{=}$ 1.0 A

Polaritateak marrazkian ageri dena izan behar du:



Micro-USB

Pin 1 "+"

Pin 5 "-"

Adierazitakoaz bestelako elikadura-iturriak erabiliz gero, baliteke ekipoak kalteak jasatea eta pertsona eta ondasunen segurtasuna arriskuan jartzea.

D ERANSKINA: irrati-uhinen eraginpean egoteari eta SARi (Specific Absorption Rate, absortzio espezifikoaren tasa) buruzko informazioa

Telefono mugikor honen diseinuak betetzen ditu irrati-uhinekiko esposizioari dagozkion araudiak. Pertsona ororen adina eta osasun-egoera gorabehera segurtasuna bermatzeko diseinatutako segurtasun-tarteak dituzten jarraibide zientifikoetan oinarritzen dira arau horiek.

Irrati-uhinekiko esposizioaren jarraibideen neurketa-unitatea absortzio espezifikoaren tasa edo SAR da. Telefonoan erabiltzen diren maiztasun-banda guztietan ziurtatutako potentzia-maila altuenean transmititzen ari dela egiten zaizkio SAREN probak, metodo estandarra erabiliz.

ICNIRP (International Commission on Non-Ionizing Radiation Protection) Erradiazio ez-ionizatzaileetatik Babesteko Nazioarteko Batzordeak gomendatzen du SAREN balio-muga hau izatea: 2 W/kg, ehunaren hamar (10) gramoko.

Hauek dira gailu honetarako SAR balio altuenak:

	Aquaris E5FHD	Aquaris E5HD8	Aquaris E5HD16
Entzumen-erabilera	0,284 W/kg (10 g)	0,283 W/kg (10 g)	0,283 W/kg (10 g)
Gorputzaren alboan eramateko	0,545 W/kg (10 g)	0,519 W/kg (10 g)	0,519 W/kg (10 g)

Posizio normalean (belarriaren ondoan) edo gorputzetik gutxienez 1,5 cm-ra erabiltzen denean betetzen ditu gailu honek irrati-frekuentziarako esposizioari dagozkion arauak. Mezuak edo datu-fitxategiak transmititzeko, gailu honek sare-konexio egokia behar du. Kasu batzuetan, baliteke datu-fitxategien edo mezuen transmisioa atzeratzea konexioa erabilgarri egon arte. Egiaztatu aurretik aipatutako distantzia-jarraibideak betetzen dituzula transmisioa burutu arte.

E ERANSKINA: produktu hau behar bezala botatzea



(Gailu elektriko eta elektronikoen hondakinak)

(Europako Batasunean eta hondakinen gaikako bilketako sistemak dituzten Europako beste herrialde batzuetan)

Ingurumenari edo osasunari sor dakizkiokeen kalteak saihesteko, bereizi produktu horiek gainerako hondakinetatik, eta birziklatu behar bezala. Horrela, baliabide materialen berrerabilpen jasangarria bultzatzen da.

Erabiltzaile partikularrok produktua erosi zenuten saltokiarekin edo tokiko agintariekin harremanetan jar zaitezke, moduekologiko eta seguruan birziklatzeko nora eraman dezakezen jakiteko.

Enpresa-erabiltzaileok hornitzailearekin harremanetan jar zaitezke, erosketakontratuaren baldintzen berri jakiteko. Produktu hau eta haren osagarri elektronikoak ez dira bota behar beste hondakin batzuekin batera (kaxa eta bestelako material ez-elektronikoak).

F ERANSKINA: adostasun-adierazpena

Mundo Reader, S.L.
Pol. Ind. Európolis
Calle Sofía, 10
28232 - Las Rozas - Madril (Espainia)
tel. +34 91 787 58 59
IFK: B85991941
Txinan egina

Enpresa horrek adierazten du smartphone honek:

bq Aquaris E5

betetzen dituela irratia- eta telekomunikazio-terminalen 1999/5/EE direktibaren xedapenak (R&TTE), behe-tentsioko ekipokoen segurtasun elektrikoaren 95/2006/EE direktibarenak eta bateragarritasun elektromagnetikoaren 2004/108/EEE direktibarenak, eta arau bateratu hauek betetzen dituela.

EN 301489-1 V1.9.2, EN301489-3 V1.6.1, EN 301489-7 V1.3.1, EN301489-17 V2.2.1, EN 301489-24 V1.5.1, EN62479: 2010, EN 301908-1 V6.2.1, EN301 908-2V5.4.1, EN 301511 V9.0.2, EN 300328 V1.8.1, EN300440-2V1.4.1, EN60950-1/A2:2013, EN 50360:2001/A2012, EN50332-1:2000, EN50332-2:2003.

Goian adierazten den helbidean eska dezakezu adostasun-adierazpenaren kopia bat.

Madriren, 2014ko maiatzean.



Alberto Méndez Peydró
CEO

CE 0168

Firmware-bertsioa:
bq Aquaris E5 HD: 1.0.0_20140521-1410

bq

www.bq.com

www.mibqyyo.com